

2017^{ko}
JARDUERA - TXOSTENA



Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

1. Vital Fundazioa	3
1.1 Kultura, Aisialdi eta Kirol saila	3
▪ Erakusketak	3
▪ Gelak	5
▪ Astearte Musikalak	6
▪ Ostiraletako kantaldiak	6
▪ Musika-lankidetzak	7
▪ Historiaren sustapena eta hedapena	8
▪ Gure zinemaren alde egiten dugu	9
▪ Lehiaketak	10
▪ Vital Araban zehar	10
▪ Jaibus Vital	11
▪ +55 kultura programak	11
▪ Beste zenbait kultura-ekimen	12
▪ Konpromisoa kirolarekin	13
▪ Hitzarmenak kultura eta kirol erakundeekin	14
1.2 Gizarte-laguntza saila	15
▪ Berakah harrera-proiektua	15
▪ Elikagaien Arabako Bankua	16
▪ Kalteberatasun larrian dauden pertsonentzako arreta	16
▪ Gizarte bazterketaren aurkako beste zenbait egitasmo	17
▪ Araba minbiziaren aurka	17
▪ Haurren aurkako bortizkeria prebenitzeko programa	18
▪ Eginaren eginez	18
▪ Desgaitasunari, gaixoei edo gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen lotuta dagoen elkarte-sarearentzako laguntza	19
▪ Vitalquiler	21
▪ +55 laguntza programak	21
1.3 Prestakuntza, Enplegu eta Ikerketa saila	22
▪ Lanbide Heziketa	22
▪ Hezkuntza programak	22
▪ EmpleoAraba	24
▪ Hazia 23	25
▪ Bekak	25
▪ Ikerketarako laguntza	26
▪ Ekintzaitzaren aldeko ekimenak	26
▪ Enplegua eta lurralde oreka	27
▪ +55 prestakuntza programak	29
1.4 Ondare eta Ingurumen saila	30
▪ Laguntza euskarari eta euskal kulturari	30
▪ Azokak	31
▪ Lurralde sustapena	33
▪ Etxe Berdeak	34
▪ Arreta etxabereei	34
2. Estadio Fundazioa	35
3. Hizkuntza Institutua Fundazioa	37
4. Sancho el Sabio Fundazioa	39

1. Fundación Vital Fundazioa

Vital Fundazioaren xedea kultura sustatzea eta garatzea, eta zientzia, teknika eta kirola bul-tzatzea eta zabaltzea da. Halaber, Fundazioak laguntza, gizarte, irakaskuntza, kultura, kirol eta adinekoentzako ekintza programak kudea-tzen ditu.

1.1. Kultura, Aisialdi eta Kirol saila

ERAKUSKETAK

Vital Fundazioaren aretoa

Vital Fundazioaren aretoak (Posta 13-15, Vito-ria-Gasteiz) arrakasta handia izan zuen berriro publikoaren artean 2017. urtean. Urtean ze-har antolatutako bost erakusketetan **91.563 pertsona** baino gehiago izan ziren. Horri es-ker, Aretoa Euskadiko erakustokirik garrantzi-tsuenetako bat gisa finkatu da.

Urte hasieran **'Paaarisien!!, argazkiak eta bizi-penak zuri-beltzean, Vitoria-Gasteiz 1880-2009'** erakusketa izan zen. Ekoizpen propioko



dibulgazio-erakusketa hori 2016ko abenduaren amaieran inauguratu zen eta 650 irudiz osatu izan zen, horitako asko inoiz argitara atera ga-beak. Hiriko biztanleen bizipenak erakusten zi-tuzten, Gasteizko argazkilari ospetsuen objek-tiboen bitartez. Erakusketa hartan, dagoeneko desagertuta dauden hiriko hainbat gun e ere berregin ziren 1/1 eskalan, esaterako saltokiak, tabernak eta jatetxeak, ibilgailu tailerrak, ar-gazki-dendak, pertsonaiak eta garai hartako zi-nema-areto bat ere bai. 'Gasteiztarrei keinu' bat egiteko sortua, **52.000** bisitari inguru izan zituen, zabalik izan zen lau hilabete luzeetan.

Ekainaren hasieran **'Bodegoiak artean'** inau-guratu zen, genero horren historiatic ibilbidea egin zuen erakusketa, XVII. mendetik gure egunetara-ino. Berrogeita hamar bat artistaren 60 lan ikusi zituz-ten bisitariak, museoek, ga-leriek eta bildumagile pribi-

Vital Fundazioaren 4 are-toek 91.563 bisitari izan zi-tuzten guztira 2017. urtean, eta beste urte batez asko-tariko erakusketa-eskaintza izan zuten



tuek lagatako bodegoiak protagonista. Pablo Picasso, Juan Gris, Gustavo de Maeztu y Whitney, Menchu Gal, Fernando Botero, Antonio López, Miquel Barceló edo Pablo Genovés izan ziren erakusketako pintore ospetsuetako batzuk. Irailaren erdialdera arte izan zen ikusgai eta **18.000** bisitari baino gehiago hartu zituen.

Urrian, Vital Fundazioa aretoak **Juan Luis Goenaga pintorearen** erakusketa erretrospektiborako laga zuen bere espazioa. Pintore gipuzkoarrak bere ibilbide artistikoan zehar egindako 44 lan erakutsi ziren, hainbat gaitakoak, esaterako, paisaiak, natura, pertsonaia abstraktuak edo arkeologia, material organikoak erabiliz egindako 'eskulan' bere sailaz gain. Abenduaren hasierara arte zabalik izan

zen erakusketa eta, bertaratu zirenei, urteen joan-etorrian Goenagaren bilakaera ikustea ahalbidetu zien, euskal pinturaren izen ospetsuenetako bilakatu arte. **13.500** bisitari baino gehiago izan zituen.

Abenduaren amaieran **'Trena zitzu bizian. 1889, Vasco Navarrotik Orient Express-era'** inauguratu zen, trenaren arloari omenaldia egiteko asmoz antolatu den familientzako erakusketa. Erakusketa, jendaurrean irekita 2018ko apirilera arte, 800 piezaz osatuta dago, maketak, argazkiak eta beste zenbait elementuren artean. Profesional ospetsuen argazkiak ikusgai, hala nola Alberto Schommer, Enrique Guinea, Santiago Arina eta Ceferino Yanguas, besteak beste. Gainera, 'Green Corner' delakoa



ere badu erakusketak, Vasco-Navarro trenaren antzinako trenbidea birsortzen duen gunea: Arabako eta Euskadiko bide berde arrakastatsuenetako bat. 2017ko amaierara arte, **8.000** pertsonak baino gehiagok bisitatu zuten erakusketa.

Luis de Ajuria eta Araba aretoak.

Vital Fundazioaren kultura-eremuen eskaintza Luis de Ajuria eta Araba erakusketa-aretoen erakusketekin osatzen da. Bietan helburu eta publiko desberdinak daude.

- **Luis de Ajuria aretoa** (Posta 13-15, 1. solairua)
Luis de Ajuria aretoa, dagoeneko finkatuta Vital Fundazioa aretoaren gaineko aldean, jarduera askotarako eremu zabal du eta erabateko irisgarritasuna, mugikortasun murritzua duten pertsonen irisgarritasuna bermatzen duen igogailu bati esker.

Eremu horrek artisten jarduera profesionala bultzatzeko helburuari jarraitzen dio egun ere. Horrela, erakusketa-espazioa lagatzen du eta Fundazioak antolatutako lehiaketetara aurkeztutako lanak zabalitzen ditu.

- **Araba aretoan** (Bakea, 5-1. solairua), bere aldetik, elkarteek antolatutako erakusketak egiten dira, horien artean, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearen lankidetzaz egindakoak nabarmentzen dira. Aretoa Fakultate horri lagatzen baitzaio, lizentziatura horretako ikasleek beraien lanak erakuts ditzaten.

Kordoi Etxea

Vital Fundazioaren egoitza den XV. mendeko eraikin gotiko-zibil adierazgarri honetan, Fundazioaren ondareko zenbait aleren erakusketa iraunkor bikaina dago: interes artistikoko altxariak, pinturak eta antzinako eskulturak, leitoizko zirkulu formako iturriak (eskaleen plater izenez ere ezagunak direnak) eta hainbat jatorritako zeramikak.

Erakusketa dorre-gotorlekuaren zulogunean dago eta bertako, Espainiako eta nazioarteko **16.081 bisitari** erakarri zituen. Iazko kopururen aldean **% 8ko igoera adierazten duen da-tua.**

Erakusketak eta bisitariak 2017. urtean

Aretoa	Erakusketa kopurua	Bisitari kopurua
Vital Fundazioa	4	91.563
Luis de Ajuria	12	9.214
Araba	13	7.371
Kordoi Etxea	1	16.081
Guztira	30	124.229

KULTURA ARETOAK

Vital Fundazioa (Bake 5, Dendarabako 1. solairua, Vitoria-Gasteiz) eta **Luis de Ajuria** (Alaba Jenerala 7, Vitoria-Gasteiz) aretoak publiko guztiarentzako irekita dauden eremuak dira, kulturaz, musikaz, poesiaz eta bestelakoez goza dezaten. Hitzaldiak, errezitalak, zinema eta beste hainbat diziplina egoten dira aretoen programazioaren barruan.

Aretoetan Fundazioak **berak ekoiztutako** kultura-eskaintza ematen da, hala nola Astear-te Musikalen ganbera-musikaren zikloa, Ostirale-tako Kantaldietako kontzertuak, Euskal Zinemaren Aste ospetsua edo Euskal Zinema Dokumentalaren Astea. Aurten, nobedade gisa, 'Jazz Vital' kontzertuen lehenengo zikloa ere antolatu da.

Horrez gain, gizarte, kultura, hezkuntza edo zientzia arloko beste talde batzuek antolatzen dituzten jarduerak osatzen dute programa. Vital Fundazioak esparru horien **erabilera lagatzen** die irabazi-asmorik gabeko kultura-ekitaldiak antolatzeko, hala nola hitzaldiak, antzezlanak, errezitalak, kontzertuak edo zinema.

Vital Fundazioaren Kultur aretoek 294 jarduera eskaini zituzten eta 37.174 bisitaritik gora hartu zuten, hau da, % 13ko igoera 2016aren aldean

Aretoa	Jarduera kopurua	Bertaratutakoen kop.
Vital Fundazioa aretoa	165	25.194
Luis de Ajuria aretoa	129	11.980
Guztira	294	37.174

Jarduera propioak	Jarduera kopurua	Bertaratutakoen kop.
Astearte Musikalak	18	3.556
Ostiraletako kantaldiak	6	667
Jazz Vital	4	235
Euskal Zinemaren Astea	12	1.256
Euskal Zinema Dokumentalaren Astea	6	851
Ikus-entzunezkoak	7	965
Poesia	5	261
Guztira	69	7.791

Jarduerak lagapenean	Jarduera kopurua	Bertaratutakoen kop.
Kontzertuak	22	3.574
Hitzaldiak	143	15.957
Zinema eta ikus-entzunezkoak	50	6.435
Poesia	1	95
Antzerkia eta dantza	6	1.089
Ikus-entzunezkoak	9	885
Kultura arlokoak ez diren beste lagapen batzuk	14	1.348
Guztira	231	29.383

ASTEARTE MUSIKALAK

Vital Fundazioak urtero antolatzen du 'Astearte Musikalak' izeneko zikloa. Ganbera-musikarako esparrua da, eta urteak aurrera joan ahala erreferente bihurtu da probintziako musika-programazioan, bere kalitatea eta ospea direla eta.

Azaro eta martxo bitartean, asteartero, gure inguruko gazteek, dagoeneko ospetsuak diren bakarlariek, bikoteek, laukoteek, boskoteek eta nazioan nahiz nazioartean ospea duten orkestrek eginiko zenbait errezitaldi izaten dira Vital Fundazioaren Aretoan.

Musika-zikloak dagoeneko 28 urte bete ditu eta 18 kontzertu egin ditu aurren. Guztira,

3.556 pertsona baino gehiago bertaratu dira, hau da **% 13ko igoera** iazko edizioarekin alderatuz gero.

OSTIRALETAKO KANTALDIAK. ARABAKO MUSIKA KORALA

Ostiraletako Kantaldiak 1998. urtean sortu ziren, Arabako musika koraren barruan jarduera luzea duten haur-talde guztiei aukera bat emateko helburuz. Dagoeneko 19 urte igaro dira sortu zenetik. oso finkatuta dago eta lurraldeko garrantzitsuenetako bat gisa hartzen dute. Orain arte egindako edizioetan 4.000 abeslarik baino gehiagok parte hartu dute.



Errezitalak Vital Fundazioaren aretoan egiten dira eta ziklo honetan urtero **367 abeslari** inguruk parte hartzen dute, iazkoaren bikoitza baino gehiago, haura da, **% 54ko igoera izan da partaidetan**. Talde guztien interpretazioen kalitatea aparta da, eta kontzertuetan gaur egungo konpositoreen lanak erabiltzen dituzte, euskal folklorea ahaztu gabe.

MUSIKA-LANKIDETZAK

Mugako kids

Vital Fundazioak eta Mugako Musika Elkarteak III. 'Mugako Kids' jarri zuten abian urrian. Gaur egungo musika elektronikoa gazteei eta familiei hurbiltzeko helburua duen ekimena da. Aukeratutako agertokia **Artium Museoa Zentroa** izan zen.

Proposamen berritzaile hori **Mugako Festival** lehiaketaren barruan kokatzen da. Hiri-lehiaketa da, gaur egungo musika elektronikoa erakusteko, eta esperientzia interaktibo bat proposatzen du, musikak pertsonen gogo-aldartean dituen eragin nabariak azaltzeko. Horretarako, bidaia artistiko bat egin daiteke, familiarekin musika elektronikorekin aukera onenen erritmoraz gozatzeko.

EGOk talentu gaztea

Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) urtero bi kontzertu aurkezten ditu (udan eta neguan) Arabako hiriburuan, lurralde honetan Vital Fundazioarekin duen lankidetzaren eskar. Lankidetzaren bitartez, urtero **bi topaketa sinfoniko** jartzen ditu abian taldeak, Vital Fundazioa aretoan, eta gure probintziako musikari gazteen kalitatezko orkestra bultzatzen du.

Luis Aranburu Musika Eskola

Gure gazteen talentuaren aldeko apustua egiten jarraitzeko, **Vitoria-Gasteizko Luis Aranburu Musika Eskolak** eta Vital Fundazioak indarrak bateratu zituzten, berriazko musika-tresnak erosteko esfortzu ekonomiko handia egin behar duten familiei laguntzeko, izan ere, oraindik ez dakite beraien seme-alabek musika-tresna hori ikasten jarraitu nahi izango duten ala ez.

2017/2018 ikasturterako 4 akordeoi erosi ziren, 10.000 euro arteko prezioaren truke. Musika-tresnak Vital Fundazioaren jabetzakoak dira eta Eskolari lagatzen dizkio. Eskolak, bere aldetik, alokairu txiki bat kobratzen dizkie ikasleei mantentze gisa. Horrela, Eskolan

ematen dituzten lehen bi mailetan, ikasteko eta etxean erabiltzeko beharrezkoa den musika-tresnaz goza dezakete ikasleek.

Epealdi hori amaitutakoan, ikasleak tresna erostea erabakitzeke nahikoa denbora igaro dela uste dute. Mailegu-aldi horretan erabili duen musika-tresna bera erosteko aukera ere ematen die programak ikasleei, eta alokairutan ordaindu dituzten kopuruak prezioetik deskontatu egiten zaizkie.

Arque Kultura Elkarte

Kulturari ematen zaion laguntzaren ildotik, zehazki, musikarekin zerikusia duten egitasmoen lanketa eta abiarazteari dagokionez, Arque Kultura Elkartearekin hitzarmen bat sinatu zen, martxoko egitarauan, 17, 18 eta 19an, opera bat sartzeko, Gaetano Donizetti-ren "Maitasunaren elixirra", eta probintzian, Amurrion, maiatzaren 6an egin zen eta Agurainen, maiatzaren 7an.

HISTORIAREN SUSTAPENA ETA HEDAPENA

Arkeologiarako Arabar Institutua

2017 honetan, **Arkeologiarako Arabar Institutuaren** sorreraren 60 urte bete dira. Urte horietan guztietan, bere jarduerak ikerketa arkeologikoaren epealdi guztiak estali ditu, aztarnategi berriak ikertzeko prospekzioetatik hasita, kultura epealdi bakoitzerako egindako egitarauetan egindako galderei erantzuna eman ziezaieketen indusketetatik jarraituz, eta argitalpenen eta hitzaldien bidez egiten den emaitzen hedapenean amaituta.

Vital Fundazioa Arkeologia Institutuarekin lankidetzan aritzen da, Arabako arkeologiaren historia, XIX. mendeko hasieretatik gaur egun arte, jasoko duen egitasmoa egin dadin. XX. mendearen bigarren zatian Araban burutu ziren lehendabiziko indusketak erakusten dituen dokumental bat egin da aurten.

Martín Ttipia Kultura Elkarte

Arabaren eta EAEko gainerako lurraldeen gaineko ikerketan eta lurralde horien defentsan dihardu elkarte honek, baita horien historia ikertu eta hedatu dadin ere. 2017an, ikuskizun historiko-kulturala garatu dute, 1.119an, Gaztelako gudarosteek Gasteiz setiatu zutenean, gertatu ziren jazoerak ezagutzera emateko.

Eszenifikazioa Vitoria-Gasteizko Alde zaharrean egin zen, bertan gertatu baitziren jazoerak, eta 45 aktorek hartu zuten parte, 100 dantzarik, 90 kantarik eta 30 musikarik. Hartara, gure historiako jazoeren eta gerora izan zituzten ondorioen ikuspegi bat ematen saiatu ziren, gaur egingo begiradaz.

Sebastián Fernández de Leceta 'Dos pelos' gerrillariaren omenez egindako birsortze historikoa

Gure gertuko historiako jazoerak eta pertsonaiak berreskuratzeko eta ezagutzera emateko laguntza irmoa eta sendoa ematen du Vital Fundazioak. Horregatik, erakundeak bat egin zuen Ullibarri Aranako Administrazio Batzordeak Sebastián Fernández de Lecetari, 'Dos Pelos' goitizenaz ezaguna, omenaldia egiteko planteatutako birsortze historikoaren egitasmoari. Fernández de Leceta gerrillari arabarra izan zen frantsesek probintzia okupatu zutenean.

Egitasmo hori Napoleonen garaiko kanpamendu militar baten muntaia izan zen, 'Gasteizko Gudua 1913' Birsortze Historikorako Elkartearen kargura, baita borroken simulazioak ere. Aldi berean, antzinako argazkien erakusketa, hitzaldi bat, baita bertako eta artisau produktuetako erakusketa eta salmenta ere.

GURE ZINEMAREN ALDE EGITEN DUGU

Euskal Zinemaren Astea

Vital Fundazioak antolatzen duen Euskal Zinemaren Astearen 33. edizioa izan da 2017. urtekoa. Otsailaren 20tik 25ra bitartean **euskal profesionalak** aurreko urtean **ekoiztutako** edo **zuzendutako** zinema-lanik onenetako batzuk ikusteko eta saritzeko aukera izan zuen publikoak. Duela hiru hamarkada sortu zenetik, jaialdi hau gure zinemari laguntzeko plataforma bat izatea izan da Vital Fundazioaren helburua, modalitate guztietan.

Euskal Zinemaren Astearen xedea da gure inguruko profesionalak parte hartu duten zinema-lanak erakusten laguntzeko plataforma izatea, eta bertaratutako publikoak parte har dezala sustatzea, izan ere, emanaldi bakoitzaren ondoren gustuko izan duten filmaren aldeko botoa eman dezakete. Beste urte batez, ikusleen laguntza izan du. Asteaz zehar 6 film luze eta 6 film labur ikusteko aukera izan dute, eta film bakoitzaren protagonistekin antolatutako saio nahiz mahai-inguruek arrakasta handia izan dute bertaratutako kopuruari dagokionez. Vitoria-Gasteizen dagoeneko finkatuta dagoen zine-ziklo honek **1.256 ikusle** baino gehiago izan zituen 2017an.

Euskal Zinema Dokumentalaren Astea

Urriaren 23tik 28ra bitartean Euskal Zinema Dokumentalaren Astearen 3. edizioa izan da Vital Fundazioaren Aretoan. Vital Fundazioak bultzatutako beste kultura-ekitaldi bat izan zen eta hainbat gaitako **6 dokumental** eman ziren.

Euskal Zinema Dokumentalaren Asteak, lehen Euskal Zinemaren Astearen barruan sartzen zuen genero hori nabarmendu nahi du. Emanaldi bakoitzaren hasieran dokumentalaren aurkezpena egiten da, eta emanaldia amaitutakoan, horri buruzko **mahai-ingurua** egiten da.

Aurtengo edizioan, kalitate handiko dokumentalak eman dira, errealitate oso desberdinei buruzkoak, esaterako, immigrazioa, erbestea edo rock-and-rolla, besteak beste. **856 pertsona** bertaratu ziren 6 emanaldi-saioretara, **% 61 gehiago**, ikusleen kopuruari dagokionez.

‘Cortada’ film laburren lehiaketa

EHUko Arabako Campusak Vital Fundazioaren babesarekin antolatuta, Cortada Lehiaketak **XXI. edizioa** bete du. Horrela, erreferente gisa finkatu da Euskadiko eta gainerako Estatuko zinema-lehiaketan egutegian, formatu txikiko zinemaren esparruan. Guztira 1.590 film labur baino gehiago jaso ziren ziklo honetan parte hartzeko, eta horietatik, **66 lan** aukeratu ziren lehiaketa honek ematen dituen sarietarako. Lehiaketa Vitoria-Gasteizen izan zen, 2017ko azaroaren 28tik abenduaren 2ra bitartean.

Haur eta gazteentzako zinema jaialdia

Abenduan, Vital Fundazioa aretoan eta beste zenbait agertokitan egin da Haurrentzako eta Gazteentzako Vitoria-Gasteizko Lehenengo Jaialdia, Zinhezba Kultura Elkartearen antolatua eta, berrikuntza moduan, Ramón Bajo Ikastetxeko neska-mutilekin batera egin du bere programa. Zinema saioetara eta aldi berean egin diren jardueretara (tailerrak, hitzaldiak, e.a.) joan diren 1.495 pertsonak hartu dute parte.

APIKA Ikus-entzunezkoen Ekoizleen Arabako Elkarte

Elkartearekin elkarlanean, Arabako zinemaren profesional guztien erreferentzia puntua izan dadin. Aurten lau hitzaldi egin dira, ekoizpenarekin eta zuzendaritzarekin zerikusia duten gaiet buruz, eta ikus-entzunezkoen Arabako ekoizpen-arloan lan-sarea eta kontaktuak eratzeari izan dute helburu.

Mendi Tour Vital

Mendi Tour Vital, Mendi Film Festival-eko sari eta emanaldi onenen hautaketa bat bilitzen duen zinema-jaialdia da. Otsailaren 27tik martxoaren 4ra bitartean, 1.734 lagunek bete zuten Vital Fundazioa aretoa, mendiko zinema onenaz goatzeko.

LEHIAKETAK

Arte Vital lehiaketa



Vital Fundazioak Arte Vital lehiaketarako deialdia egin zuen martxoan, **lurreko artista berriak** ezagutzeko aukera emateko helburuz. Ekimen horrek Arabako artisten lanak nabarmendu nahi ditu; artista gazteenak bereziki.

Lehiaketak sari handiak ditu eskudirutan, eta bere xedea adin guztietako artistek parte hartzea da, arte plastikoa edozein dela ere: **pintu-**

ra, eskultura edo argazkilaritza. Guztira hainbat diziplinako 73 artistek hartu dute parte bigarren edizio honetan.

Horrez gain, Vital Fundazioak erakusketa-gelak bat lagako die edizio bakoitzean saritutako egileei, erakundeak hurrengo urtean antolatutako programazioan erakusketa bat egin dezaten elkarrekin.

Kultura jarduera hori osatzeko, **Parasite Kolektiboa Elkartearekin** lankidetzan 3 beka eman dira, sormen artistikoa saritzeko. Lan horien aurkezpena 2018an egingo da, Vital Fundazioa aretoan.

Vital Poesia lehiaketa

Vital Poesia lehiaketa arabarren parte hartzerako deialdi irekia da sortzetik; izan ere, **euren trebetasun poetikoak garatzeko aukera** eman nahi die arabarrei. Modalitate bakarra du deialdiak, konposizio originalak eta argitaratu gabek aurkeztu behar dira, euskaraz edo gaztelaniaz idatziak eta gaia librea da. Vital Fundazioak, diploma egiaztagarriaz gain, lau sari ematen ditu, 100 eta 400 euroko artekoak.

UDA KULTURALAK VITAL ARABAN ZEHAR PROGRAMAREN ESKUTIK

Vital Araban zehar Programak Vital Fundazioak lurrekoekin duen konpromisoa indartu egiten du. Programaren helburua da Arabako udalerriei, udan, askotan Arabako zenbait herritarra heltzen ez den kultura-programazioa eskaintzea, baita bertako artista-taldeei jendaurrean aritzeko aukera ematea ere.

‘Vital Araban zehar’ 83 kultura-jardura eskaini zituen Arabako 67 herritan udako hilabeteetan, iaz baino 6 geiago.

Programaren XIII. edizioan **18.240 lagunek** parte hartu zuten joan den udan antolatutako **83 jardueretan**. Besteak beste, musika-taldean emanaldiak, abesbatzen errezitalak eta dantza eta ballet erakustaldiak izan ziren hiru hilabete baino gehiagoko kultura-programazioaren barruan Arabako 64 herritan eta Trebiñuko Konderriko 3tan.

Vital Araban zehar programak Vitoria-Gasteizetik kanpoko biztanleei programazioa hurbiltzeko helburua bete du beste urte batez; izan ere, hori gabe, zail izango lukete jarduera horietaz gozatzea.

JAIBUS VITAL. DIBERTSIORIK HANDIENA, ARRISKURIK GABE

Jaibus Vital herriko festak ospatzen dituzten hurbileko herrien artean egiten den garraio-zerbitzua da. Joan-etorri murriztuak dira eta 15 urtetik gorako gazteen beharretara egokitzen diren ordutegiak ditu.

2.400 gazte baino gehiago joan ziren, segurtasunez, Arabako 56 herritako jaietara, Vitoria-Gasteizkoak barne

Ekimen horren helburua Arabako gazteak lurraldeko herrietan antolatzen diren jaietara segurtasunez joatea eta **aisialdi arduratsua** sustatzea da. Dagoeneko XVIII. edizioa izan da

2017. urtekoa.

Jaibus Vital ekimenak berriro ere arrakasta handia izan du, izan ere, aurreko urtearen aldean **% 7,4** gazte gehiagok erabili dute: guztira, 2.398 lagunek erabili dute zerbitzu hau, jarduera lau hilabete baino gehiagotan. Joan den ekainetik 56 autobus erabili dira kanpainan, Arabako 48 herritako jaietarako, eta beste 8 Vitoria-Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietarako.

+55 KULTURA-PROGRAMAK

Vital Fundazioak kultura, kirol eta aisialdi ekintzak sustatzen ditu 55 urtetik gorako adinekoentzat berariaz. Ekimen horien helburua adin-talde horretako pertsonen kulturaz gozatzea eta edozein jolas- eta prestakuntza-jarduera sustatzea da.

Hauk izan dira **15 kultura-jardueren** artean arrakastarik handiena izan dutenak: Vitoria-Gasteizko eraztun berdearen inguruko ibilbidea, eta mendi-ibiliak Araban zehar programa. 1.500 pertsona inguruk hartu dute parte lehenengoan eta 1.700tik gora izan dira bigarrenen. Hitzaldi zikloa eta zineforuma ere nabarmendu behar dira, ia 1.000 partaide izan baitute edo lurraldetik egin diren kultura ibilaldiak, 300 partaidetik gorakoak. Era berean poesiarekin zerikusia duten jarduerak 177 pertsona erakartzea lortu dute.

Aipamen berezia merezi dute boluntariotza jarduerak. Lau boluntariok irakurri egiten diete egoitzatan bizi diren 544 pertsona ingururi.

GIZARTE ETA KULTURA PROGRAMAK	+55
POESIA JARDUERAK	132
OSASUNAREN GELAK PROBINTZIAN	146
POESIA LEHIAKETA	34
NAZIOARTEKO BERRIAK AZTER-TZEKO KLUBA	90
POESIA KLUBA	11
KONFERENTZIAK PROBINTZIAN	103
POP ABESBATZA	45
KONFERENTZIAK ETA ZINEFORUMA	943
PETANKA	45
KULTURA IBILALDIAK	325
MENDI IBILIAK ERAZTUN BERDETIK	1.495
MENDI IBILIAK ARABATIK	1.711
KULTURA BOLUNTARIOAK (jaso-tzaileak)	544
KULTURA BOLUNTARIOAK (boluntarioak)	4
ERABILTZAILEAK GUZTIRA	5.988

BESTE ZENBAIT KULTURA-EKIMEN

Magia lurralde osoan

Vital Fundazioak Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Magia Lehiaketarekin **-Magialdia-** duen lotura duela zenbait urte hasi zen, lankidetzahitzarmenen bitartez eta erakundearen kultura-eremuak lagatzearekin. Izan ere, bere egoitzan, Kordoi Etxean, 'Hurbileko magia ibilbideak Alde Zaharretik' ikuskizunaren agertokietako bat da, eta Vital Fundazioa aretoak urtero Haurren Magia Gala eta Magia Solidarioaren Gala antolatzen ditu.

Horrez gain, 2017. urtean, Jaialdiarekin duen konpromisoa indartu du Fundazioak, **'Magialdiaraba'** programan ere parte hartuz. Horren bidez, goi-mailako ikuskizunak eramaten ditu gainerako probintziara. Vital Fundazioaren laguntzari esker, Lurraldetik egindako ibilbidea zabaldtu egin da eta, dagoeneko, 11 herritara heldu da.

Arabako liburu-saltzaile elkartearen I. azoka

Arabako liburu-saltzaileek elkartearen I. Liburu Azoka antolatu zuten. Vitoria-Gasteizen egin zen azoka, azaroaren 24a eta abenduaren 3a bitartean, publiko arrakasta handiz eta aldi berean hainbat jarduera egin ziren, esaterako hitzaldiak eta liburu aurkezpenak.

Vital Antzerki

2014tik, 24.000 ikusletik gora igaro dira Beñat Etxepare antzokitik eta hartu dute parte Vital Antzerki programetan adin talde guztietarako prestatutako antzezlanetan (haur hezkuntza) eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta DBHrako ikuskizunetan ere bai.

Etikari buruzko Euskal Foroa

Gizartean dauden erronka moral konplexuen aurrean dugun kezka dela eta, Euskadi osoko pertsona, erakunde eta elkarte talde batek egitura bat sortu du lankidetzaproiektuak sortzeko. Hartara, balio etikoen azterketa, ezagutza eta aplikazioa handitzea eta zabaltzea du



xede. **Euskadiko Etika Klusterra Fundazioak** etikari buruzko lehenengo euskal klusterra aurkeztu zuen 2015eko urrian Vital Fundazioaren eskutik.

2017. urtean zehar Euskadiko Etika Klusterrak 'Gerraren ondorioei buruzko IV. jardunaldia' burutu zuen eta Etika Foroak **4 hitzaldi** eman ditu askotariko gaiei buruz: zuzenbidearen etika, deontologia elkargo profesioaletan, kontsumoaren etika edo bioetika.

Gauekoak. Aisialdi arduratsua

Vital Fundazioak 2016. urtean hasi zuen lankidetzagauekoak programarekin. Ordezko aisialdi programa osasungarria da **16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat**, Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatutakoa. Bere ekintza-esparrua asteburuko kultura, kirola eta aisialdia dira. Gaur egun, erreferentzia da mota horretako jardueretan; izan ere, abian jarri zenetik, hiriko milaka gaztek parte hartu dute.

Vital Fundazioaren eta Gauekoak programaren arteko lankidetzahitzarmenari esker, 2017. urtean kultura arloko zenbait jarduera egin ziren, eta horien artean, M-Fest, uztailean, emakume artista ikusarazteeko jaialdia. M-Fest ekimenaren eskutik, emakumeen horien lanen erakusketa bat eta emanaldiak zuzenean egin ziren.

KONPROMISOA ARABAKO KIROLAREKIN

Vital Fundazioaren beste jarduera-ildoetako bat gazteen artean kirola egin dadila sustatzea da, oinarrizko kirolaren bidez; baita kirol inklusiboan berdintasunaren balioak bultzatzea ere.

Oinarrizko kirola

Vital Fundazioak gazteen artean jarduera fisikoa sustatzen duten **40 talderi** laguntzen die: futbol klubak (Nanclares, San Martín Ariznabarra, San Ignacio, Club Fútbol Luzerna Rioja Alavesa edo Zaramaga); txirrindularitza (Txirrindularitzako Arabako Federazioa, Zuyano, Durana Txirrindularitza Elkarte edo Arabarrak); atletismoa (La Blanca edo Laudio); saskibaloia (Araski, Araberri); Oskitxo eta Suprarítmica gimnasia kluba; Gasteiz mendi-kluba; Eharialde emakumezkoen eskubaloia kluba, Gasteiz tenis kluba, Boleiboleko Ekhitarrak, Lautada Waterpolo kluba, eta oinarrizko kirola sustatzen duten bere federazio guztiak.

Kirol inklusiboa

Vital Fundazioak 29.000 euroko hitzarmen bat du **Zuzenak Fundazioarekin**. BSR taldea babes-teaz gain, hitzarmen horri esker, fibromialgiari edo sorbalda osasuntsuari buruzko tailerrak eta urtero 1.000 ikasle baino gehiagori heltzen zaien eskola-kanpaina bat antola daitezke.

Gizarteratze-programak gizartetik baztertzeko arriskuan dauden neska-mutilekin **Arabako Boxea Federazioarekin edo Gaztedi Rugby Taldearekin**. Kasu honetan, euren Eskolarako hitzarmenaz gain, Vitoria-Gasteizen joan den abuztuan egin zen IMART, Errugbi Inklusiboaren Munduko II. Txapelketarako ere eman da laguntza.

2017an, **Mendi Solidarioak Elkartearekin** eta "Ametsak bete" euren programa zegoen hitzarmena ere berritzu zen. Programa horrek mendia desgaitasun funtzionala duten pertsonen hurbiltzea du helburu, baita boluntario gehiago prestatzea ere, amets horiek bete daitezzen.





Kirol probak

Vital Fundazioaren beste jarduera-ildoetako bat kirolaren kultura arabarren artean sustatzea da, osasunaren, lehiakortasun onuragariaren eta talde-lanaren eragile gisa. Hori dela eta, balio horiek sustatzen dituzten zenbait kirol-proba babesten ditu erakundeak.

Izaera horren adibide bat da **Vitoria-Gasteizko enpresen lasterketa**, izan ere, urtero 70 enpresa eta 700 parte-hartzailek baino gehiagok hartzen dute parte edo **Arabako Errioxa Maratoi Erdia**.

Beste adibide batzuk ere badira **'San Joan gaua' gaueko lasterketa**, Estibalitzerako igoera edo **BTT Vital Extrem**, 1.114 partaiderekin.

HITZARMENAK KULTURA ETA KIROL ERAKUNDEEKIN

Urtean zehar hitzarmenak sinatu ziren **170 tokiko erakunderekin** eta Lurraldeko zazpi koadriletako kultura- eta kirol-elkarterekin, kultura zabaltzen laguntzeko, kirol-jardueretan parte hartzea sustatzeko eta oinarrizko kirolari laguntza tinkoa emateko probintzia osoan.

Kultura-hitzarmenen artean nabarmendu behar dira Europaren Sustraiak Kultura Elkartarekin, 'Gasteizko gudua 1813' Elkarteko Historikoarekin, Eskualdeko Etxeekin mantentzen dituztenak, edo Laudio, Amurrio, Kanpezu edo Navaridaseko udalekin sinatutako akordioak, kultura-jarduerak sustatzeko, Urizahar, Arrazuz-Ubarrundia, Artziniega, Guardia, Lantaron, Laudioko Roke Deunaren Kofradiako udalak.

Kirol hitzarmenen barruan honako hauek nabarmentzen dira, Manuel Iradier Txangolari Elkartea, Gasteiz Mendi Kluba, Araberri Saskibalo Kluba, Arabako Eskubaloi Federazioa, Artzain-txakurren Elkartea (Arate) edo Vitoria-Gasteiz Triatloia.

Horrez gain, 2017an zehar, emakumezkoen kirola bultzatzeko programa baten garapenean lan egiten hasi da, probintziako klub, federazio eta ikastetxe askorekin, aspaldiko urteetan, egiten ari den lankidetzaren osagarri izan dadin.

1.2. Gizarte-arloa

Berakah harrera-proiektua

Vital Fundazioak 2009an Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoko Batasun Pastoralarekin hartu zen konpromisoa berri du, Arabako gizarteko familia eta pertsona behartsuenen oinarritzko eta berehalako premiak bideratzeko helburuz diharduena.

151.000 €-ko zuzkidurarekin, Berakah programak elikagaiak eta jantoki-txartelak banatu zizkien 5.000 bat familia behartsuri

Horrela, Vital Fundazioak bere oinarritzko premiak asetzeko nahikoa diru-sarrerarik ez duten familientzako, lanpostu bat lortzeko zailtasunak dituzten iraupen luzeko

langabeentzako, bestelako laguntzarik jasotzen ez duten edo haien egoera okerrera joan den etorkinentzako, edo funtsezko eskubiderik ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran daudentzako ekimena finkatzen laguntzen du.

Berakah programari esleitutako 151.000 euroko ekarpen ekonomikoaz, akordio honi esker, 90.000 kilo elikagai baino gehiago banatu ahal izan dira 5.000 familia behartsuen artean. Beraz, **urtean 20.000 pertsona** inguru artatu direla esan nahi du.

Horrez gain, aholkularitza ere ematen du lege gaitan eta gai juridikoetan nahiz prestakuntzaren eta autoenpleguaren arloetan, arreta psikologikoan, eskola-laguntzan. Bestalde, bitartekaritza-zerbitzua ematen du etxebizitza-kontuetan, bestelako ekintzen artean.

Fundazioaren laguntzari esker, Berakah programak aholkularitza psikologiko eta juridikoa eskaintzen du autoenpleguaren arloan

Berakahrekin egindako lankidetzahitzarmenaren barruan, Vital Fundazioak beste proiektu bat bultzatu zuen 2015. urtean, eskasia-egoeran dauden zenbait familiari ostatu partekatu bat eskaintzeko, denbora mugatu batez: **Belén Etxea**. Proiektuaren asmoa da ordainketari aurre egin ezin diotenei etxebizitza bat ematea. Ekimena familientzat, adingabeak bere ardurapean dituzten emakumeentzat eta sor litezkeen beste antzeko kasu batzuetarako da. Baliabide hau abian jarrita, Vital Fundazioaren asmoa da etxebizitza eta haren hornidurak ordaindu ezin dituzten familiei oinarritzko ostatu-beharra ematea. 2017an 12 etxebizitza zeuden, 6 boluntarioen zuzendaritzapean, eta 26 familiaren gizarteratzean lagundu zuten, guztira 113 pertsona artatuz.

Halaber, Berakah-rekin egindako akordioak barne hartzen du **Tabgha jaki-toki solidarioari** emandako laguntza. Ekimen hau, elikagaiak eta oinarritzko higie-ne eta garbiketa produktua saltzen dituen irabazi-asmorik gabeko denda batean gauzatzen da. salgaiak prezio desberdinetan daude, erosten dituzten pertsonen gaitasun ekonomikoaren arabera. San



Vicente Parrokiaren atzealdean kokatuta -Berakah-ren lokalen ondoan-, jaki-toki solidarioan bi motatako prezioak aurki daitezke: batetik, baliabide gutxi dituzten familientzat, prezio murriztuen truke erosten dituztenak; bestetik, elikagaiak kalean duten merkatu-prezioan erosten dituzten familientzat. Prezioaren % 100 ordaintzearen ondorioz uzten duten margina familia behartsuenei eskaintzen zaizkien deskontuetarako erabiltzen da.

2017ko proiektu berritzailea, eta jaki-toki solidarioa proiektuaren barruan, **'Jaki-toki Solidarioaren Makina'** instalatu zen Vitoria-Gasteizko Azoka plazako merkatuaren barruan. Makina hori banagailu bat da eta, euro 1etik hasita, behartsuenentzat izango diren jakien dohaintza egitea ahalbidetzen du, trukean dohaintzan eman den elikagaiaren irudia duen kutxatxo bat ematen du.

Elikagaien Arabako Bankua

Elikagaien Arabako Bankuak urtero 1.800 familia artatzen ditu, Arabako 71 elkarteetan integratuak, beraz, 7.500 onuradun baino gehiago daude.

Vital Fundazioak urtero berriztatzen du duela 17 urtetik Elikagaien Bankuarekin duen lankidetzatza. 2017an, **10.000 €-ko** ohiko ekarpenaz gain,



15.000 €-ko beste ezohiko ekarpen bat egitea erabaki zen, eguneroko banaketan kaloria eta bitamina falta leuntzeko funtsezkoak diren bi elikagai ziurtatzeko: **patatak eta arrautzak**. Laguntza horri esker, 15.545 kg patata eta 8.656 dozena arrautza erosi ziren, hartara, hileko eta onuradun bakoitzeko 8 arrautza eta kg 1 patata banatzea lortu zen (OMEk gomendatzen duen kopuruaren erdia).

Vital Fundazioak Bankuak azaroan probintziako supermerkatuetan egiten duen eta urtero elikagai kopuru handia biltzea lortzen duen **elikagaien bilketa handian** ere laguntzen du.

Kalteberatasun larrian dauden pertsonentzako arreta

2009. urtetik **Gurutze Gorriak** bere esku-hartzea zabaldu zuen, herrialdeko krisialdi sozioekonomikoak kaltetutako pertsonen laguntza emateko. Arabako Gurutze Gorriak proposatutako esku-hartzea **gizarte larrialdi egoera** lehenetsunez artatzea izan da eta pertsonen eta familien larrialdi ekonomikoari eustearena ere, oinarriko beharrezkoen estaldura erraztuz, baina, baita euren enplegarritasuna hobetzen lagundu eta zeukatena baino egoera hobean kokatu, lanposturen bat lor zezaten.

Orotara, **12.000 €-ko** euroko ekarpena egin du 2017an Vital Fundazioak, Vitoria-Gasteizen burutzen den eta 30 eta 65 urte arteko pertsonentzat den proiektu horretan laguntzeko. Pertsona horiek Gizarte larrialdietarako Unitatea, "aurrezki bonoa" prestazioa eta/edo elikagaien prestazioa programetan artatutakoak izan behar dute.

Ekintza eremu guztien artean, eskubideei, osasun sistemarekin zerikusia duten tramiteei eta baliabideei, gizarte eta/edo komunitate baliabideei buruzko orientazioa eta aholkularitza nabarmentzen dira, baita laguntza psikologikoa eskaintzea edo esku-hartze plan indibidua-

lak egitea. Hartara, isolamendua eta muturreko kalteberatasun egoerak kroniko bilakatzea saihestea da helburua. Egoera horretan dauden % 55 emakumeak direla esan behar da.

Gizarte bazterketaren aurkako beste zenbait egitasmo

2017an, Vital Fundazioak bazterketa arazoak dituzten pertsonak gizarteratzeko lan egiten duten elkarteek garatzen dituzten programak babesten jarraitu du.

Horrela, hitzarmenak berriztu dira, hala nola **AGLE Elkartearekin** sinatutakoa. Bere helburu nagusietako bat guraso bakarreko familien, imigranteen eta genero-indarkeriaren biktimen arreta eta gizarte-sustapena, gai sozialetan eta pertsonaletan gidatuz. Erakundeak **6.000 €-ko** ekarpena egin du orotara, **Loremaitea** programara bideratua, baliabide ekonomiko nahikorik, ezta gizarte-laguntza sarerik ere, ez duten guraso bakarreko familietako adin txikikoei laguntza emateko zerbitzua, beste zerbitzuren arauturen batek estaltzen ez duen euren aita/amen lan edo prestakuntza ordutegian zainduta egon daitezen.

Bestalde, lankidetzahitzarmen bat bultzatu da **INSOLA Elkartearekin**, **'Aldi baterako etxebizitzak'** programa abiarazteko, gizarte bazterketan dauden pertsonak artatzeko. **10.000 €** bideratu ditu Vital Fundazioak, 10 pertsona hartzeko lau etxebizitzaren lagapenerako. Pertsona horiek, INSOLA tailerretan aritu direnean, gizarteratzeko eta laneratzeko euren gaitasuna erakutsi behar izan dute, emantzipazio adinera iritsi direlako, droga-mendekotasun ohituretatik segurtasunez atera direlako edo DSBE edo GLL jasotzeari utzi diotelako, eta gizarteratzeko arrazoizko epealdi bat behar dutenean.

Vital Fundazioaren laguntzak **8.800 €-ko** ekarpena egin dio **Calí programaren** garapenari.

Programa hori Emakume Ijitoen Aukera Berdintasuna eta Gizarteratzea eta Laneratzeko eta askotariko diskriminazioa artatzeko da. **Fundación Secretariado Gitano (FSG)** delakoak hainbat abiarazten jarraitu du Araban, besteak beste, Arabako ijito-komunitateak erabateko hiritartasuna lor dezan laguntzeko, euren bizibaldintzak hobetzeko, tratu-berdintasuna sustatzeko, diskriminazio mota guztiak ekiditeko, baita euren kultura-identitatearen aitortza sustatzeko ere.



Araba minbiziaren aurka

Urtero zenbait ekitaldi antolatzen dira Vitoria-Gasteizen minbiziaren gaixotasuna normalizatzeko eta jendea prebentzioaren aurrean sentikor bihurtzeko. **Minbiziaren Aurkako Arabako Elkarateak** antolatzen ditu Vital Fundazioaren laguntzarekin, bi erakundeek duten lankidetzahitzarmenari esker. 2017an **18.000 euroko** ekarpena izan zuten hitzarmen horren eskutik.

Joan den urriaren 8an Vital Fundazioaren laguntza aktiboarekin antolatutako **Minbiziaren aurkako III. martxa** egin zen. Proba ez da lehiatzekoa eta Araban minbiziaren aurkako elkartei lagundu nahi dien edozein pertsonak parte har dezake. Diru-bilketa osoa elkartearen programak eta jarduerak finantzatzeko erabili zen: laguntza integrala paziente eta senideei,

prebentzioa, detekzio goiztiarra eta gaixotasunaren ikerketa. Minbiziaren aurkako III. Martxak aurreko edizioaren partaidetzaren datuak bikoiztu zituen, izan ere, 2.250etik gora izan ziren.

Halaber, eta Vital Fundazioak Madrilen **Alavesen fan zone** delakoan antolatutako jardueren eskutik (Futboleko Errege Kopa zela eta), 5.500 € gehiago bideratu ziren elkartera, ikerketarako, "Arnasa betean" kanpainaren ekintza solidarioari esker.

Haurren aurkako bortizkeria prebentziko programa

Haurren eskubideen defentsan eta sustapenean lan egiten duen **Save the Children** GKEk programa berritzailea abiarazi zuen 2017ko irailan, baloreetan oinarritutako heziketan eta sensibilizazioan ardatzuta. **'Haurren aurkako bortizkeriaren prebentzioa'** izenpean, haurren aurkako bortizkeriatik aske dagoen gizartea bermatzea du helburu proiektuak, prebentzioaren eta babesaren bitartez.

Programak 19.000 €-ko zuzkidura izan zuen, eta horietatik Vital Fundazioak **8.000 €** jarri zituen. Programaren funtsa, Save the Children-ek Vitoria-Gasteizen duen heziketa eta aisialdi laguntza-programan parte hartzen duten adin txikikoentzako tailerrak izan ziren, baita euren familientzat ere (gurasoentzat), eta artatzen dituzten profesionalentzat. Hezkuntza arlotik, neska-mutilak eta gazteak artatzearekin zerikusia duten profesionalak ere inplikatu ziren.

Fundazioaren laguntzari esker, haurtzaroko bortizkeriaren aurkako heziketa esku hartzea hobetzeko, hautematean eta kudeaketa emozionalean oinarritutako programa garatu zuen Save the Children erakundeak.

Proiektua 86 pertsonatara iritsi zen, horietatik 48 neska-mutilak, 24 kideko bi taldetan banatuta, 14 aita-amaz osatutako talde bakarra, eta hezkuntza eta laguntza arloetako 24 profesionalen osatua.

Prestakuntza programa hori tresna praktikoa suertatu da, bai emozioak antzemateko, baita horiek kudeatzeko ere, erantzun enpatikoa handitzeko edo eskola-eremuan tratatu txarren prebentzio-baliabideak mugiarazteko helburuz.

Eginaren eginez

Eginaren Eginez, **Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Arabako Elkarte**a 1979ko uztailaren 29an sortu zen, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizarteratzerara bideratutako lana koordinatzeko helburuz, gizartearen arlo guztietan.

2017an, **AUZOKIDEAK – "Compañer@s de barrio"** ikuskizuna burutu dute, 'Aniztasun funtzionalean hezten' gizarte sensibilizazio kanpainaren barruan. Txotxongiloz egindako antzezlanak izan zen, ordubeteko iraupeneko, 8 eta 12 urte arteko umeentzat, Pantha Rei taldeak ekointzia eta irakasleentzako gida didaktiko batez lagundua. Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan antzeztu eta landu zen.

Vital Fundazioak emandako **10.000 €-ko** laguntzari esker, probintziako hainbat ikastetxetara ere iritsi zen. Pantha Rhei taldea sei herritarra joan zen: Izarra, Valdegobia, Amurrio, Kanpezu, Agurain eta Oion. Zazpi emanaldi egin ziren hamaika ikastetxetan eta 1.800 eskola-umek ikusi zituzten orotara.

Desgaitasunarekin, gaixoezin edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonekin lotutako elkarteei emandako laguntza

Halaber, 2017. urtean zehar **beste 54 lankidetzahitzarmen** egin dira zenbait gaixotasun dituzten pertsona-taldeekin. Horien artean hauek nabarmentzen dira:

1. **AAE** (Epilepsiaren Arabako Elkarte)
2. **AAL** (Laringektomizatuen Arabako Elkarte)
3. **ACABE** (Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Arabako Elkarte)
4. **ADALAVA** (Diabetikoen Arabako Elkarte)
5. **ADEAR** (Artritis Erreumatoide eta Espondilitis Gaixoen Arabako Elkarte)
6. **ADELES** (Lupus gaixoen Arabako Elkarte)
7. **ADELPRISE** (Linfedema Primarioa eta Sekundarioa dutenen Arabako Elkarte)
8. **AEFAT** (Ataxia Telangiektasia Familiaren Espainiako Elkarte)
9. **AEMAR** (Esklerosi Anizkoitzaren Arabako Elkarte)
10. **AFA ARABA** (Alzheimer gaixotasuna eta beste demenziak batzuk dituzten gaixoen senideen Arabako elkarte)
11. **AI LAKET!!** (Gazteen lonjen erabilera ludikoari lotutako arriskuak murrizteko elkarte)
12. **ALCER** (Giltzurruneko Gaixotasunen Aurka Borrokatzeko Arabako Elkarte)
13. **AMAPASE** (Ama eta Aita Bananduen Arabako Elkarte)
14. **APDEMA** (Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarte)
15. **ARABAKO GORRAK** (Arabako Pertsona Gorren Elkarte)
16. **ARENE** (Gaixo Neuromuskularren Arabako Elkarte)
17. **ARESBI** (Arantza Bifidoa eta Hidrozefaliaren Arabako Elkarte)
18. **ASAFES** (Gaixotasun Mentala duten Pertsonen eta Senideen Arabako Elkarte)
19. **ASAMMA** (Bularreko minbizia eta/edo ginekologikoa duten emakumeen Arabako elkarte)
20. **ASCUDEAN** (Adinekoak Zaintzen dituzten Senideen Elkarte)
21. **ARABAKO BAKELEKUA ELKARTEA** (Kanpamendu sahararretan errefuxiatua dauden haurren aldeko elkarte)
22. **AUTISMO ARABA ELKARTEA** (Autismoaren eta garapeneko beste nahaste batzuen Arabako elkarte)
23. **ETXEA JOSU ELKARTEA** (Etxea Josu Abegi Elkarte)
24. **GIZARTERAKO ELKARTEA** (Emakume prostituentzako abegia eta orientazioa)
25. **GURE BIDEA ELKARTEA** (Gizarteratzeko elkarte)
26. **KULUNKA ELKARTEA** (Garapen asaldura duten haurren arretarako elkarte)
27. **PRESTATURIK ELKARTEA** (Atzerriko profesionalen Arabako Elkarte)

- 28. SAGRADA FAMILIA CHERNOBIL ELKARTEA** (Chernobileko haurren abegirako familien elkarte)
- 29. IKIRIKI ELKARTE SOZIOKULTURALA** (ongizate psikosoziala eta animaliekiko eta naturarekiko elkarreragina sustatzeko elkarte)
- 30. TALUR ELKARTEA** (Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aisialdi eta denbora liberako elkarte)
- 31. ZUBIA GURUTZATZEN ELKARTEA** (Gizarteratzeko eta laneratzeko tailerrak egiteko elkarte eta ekimen etxea)
- 32. ASOPARA** (Parkinson Araba Elkarte)
- 33. ASPACE** (Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aisialdi eta denbora liberako elkarte)
- 34. ASPANAFOA** (Minbizia duten haurren gurasoen Arabako elkarte)
- 35. ASPASOR** (Gorren gurasoen eta lagunen Arabako elkarte)
- 36. ATECE** (Hartutako Kalte Zerebralaren Arabako Elkarte)
- 37. ELIZBARRUTIKO CARITAS** (Gasteizko Elizbarrutiko Caritas)
- 38. CORAZÓN SIN FRONTERAS** (Gaixo kardiobaskularren eta euren familien bizi-kalitatea hobetzeko elkarte)
- 39. DOWN ARABA ISABEL ORBE** (Down Sindromearen Isabel Orbe Arabako Elkarte)
- 40. EZEBA** (Zeliakoen eta Zeliakoen Familien Arabako Elkarte)
- 41. FEVAPAS FEDERAZIOA** (Gorren Gurasoen eta Lagunen Elkarten Euskadiko Federazio)
- 42. ADSIS FUNDAZIOA** (Gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa eraikitze fundazio)
- 43. CORAZONISTAS FUNDAZIOA** (Heziketarako, sentsibilizaziorako eta garapenerako nazioarteko lankidetzarako fundazio)
- 44. JAIKI FUNDAZIOA** (Droga-mendekotasuna duten eta gainditzeko bidean dauden pertsonen fundazio)
- 45. BEROA TUTORETZA FUNDAZIOA** (Gaixo mentalen Arabako tutoretza fundazio)
- 46. USOA TUTORETZA FUNDAZIOA** (desgaitasun intelektuala duten eta babesgabezia egoeran dauden pertsonen tutoretza fundazio)
- 47. GIZABIDEA** (Presoen defentsarako elkarte)
- 48. GUREAK ARABA** (Desgaituentzako Enplegu Zentro Berezia)
- 49. HAR-EMAN** (Desgaitasun intelektuala duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko elkarte)
- 50. HOGAR ALAVÉS** (Hogar Alavés Elkarte, gaixotasun mentala duten pertsonen errehabilitaziorako)
- 51. ITXAROPENA** (Ikusmen Desgaitasunaren Arabako Elkarte)
- 52. ONCE** (Itsuen Erakunde Nazionala Araban)
- 53. SIDALAVA** (Ihesaren aurkako Arabako Herritarren Batzorde)
- 54. ITXAROPENAREN TELEFONOA** (Itxaropenaren eta adiskidetasunaren telefonoaren Arabako elkarte)

Vitalquiler

2001. urtean abian jarri zen une horretan Vitoria-Gasteizen arrazoizko prezioaren truke alokairuan zegoen etxebizitza-eskaintza eskasari erantzuteko. Vitalquiler gizarte-programa da, etxebizitza bat izateko zailtasunak dituzten pertsonentzat.



Hasiera batean proiektuaren xedea Arabako gazteek gurasoen etxetik joateko beharrari erantzutea zen, diruz lagundutako alokairuak eskainiz, lan-merkatu sartzaren bitartean. Hala ere, gizartearen bilakaerak eta haien etxebizitza-beharrek programa herritar guztiei zabaltzea ekarri dute, adin-mugarik gabe.

Vitalquiler proiektu aitzindaria da eta erreferentzia gisa balio izan du beste erakundeetan egindako antzeko ekimenetarako. Hainbat sari jaso ditu.

Idea berritzaile horri esker, **6.500 pertsonak** baino gehiagok etxebizitza duin bat eskuratu dute arrazoizko prezio baten truke. Vital Fundazioak **14,4 milioi** euro bideratu ditu ekimen horretara, sortu zenetik. Aukera horretaz baliatuz, gurasoen etxetik joateko aukera izan dute, bizitza berri bati ekin diote edo familia bat osatu dute.

Vitalquiler programak baldintza hauek eskaintzen dizkie errentariei:

- Adin nagusikoa edo emantzipatuta dagoen adingabea izatea
- Etxebizitarik ez izatea (bananduta dauden pertsonak izan ezik)
- Euskadin erroldatuta egotea
- 3.000 eta 39.000 euro arteko diru-sarrerak izatea (kide bateko familia-unitateak)

Diru-laguntzen zenbatekoa:

- Urteko diru-laguntza = urteko alokairu-errenta - diru-sarreraren % 30.
- Edonola ere, errentariak gutxienez 250 € ordaindu beharko ditu errenta gisa hileroko (1 logelakoa), 300 € (2 logelakoa) eta 325 € (3 logelakoa).

Abenduaren 31n Vitalquiler-ek **869 etxebizitza** zituen, urteko batez besteko errenta 5.700 eurokoa zen eta urteko batez besteko diru-laguntza 822 eurokoa.

+55 laguntza programak

Vital Fundazioak helduentzat berariaz diren bi laguntza-proiektu bultzatzen ditu.

Nabarmentzekoa da **komunak egokitzeko** programa. Ekimen hori, hirurogeitik gorako pertsonen etxebizitzetako bainugelak egokitzeko da. Horrela, segurtasunez eta modu autonomoan erabiltzen laguntzen duten elementuak jartzen dira, istripuak saihesteko. Programa abian jarri zenetik 2.636 eskaera jaso dira guztira, eta horietatik, 2.247 lan amaitu egin dira abenduaren 31rako.

Komunak egokitzeko programa	51 diru-laguntza
Estimulazio kognitiboko tailerrak	360 parte-hartzaile
Guztira	411

1.3. Hezkuntza, Prestakuntza, Enplegua eta Ikerketa saila

Lanbide Heziketa, lehenetasuna

Vital Fundazioak konpromiso historikoa du Araban Lanbide Heziketaren garapenarekin.

Horrela, **Egibide** Lanbide Heziketa zentroa finantzatzen du. Lankidetzak honek 550.000 eurotik gorako ekarpena izan du, eta ekarpen horri esker, zenbait ekintza egin ditu lanbide-heziketa sustatzeko, hala nola lan eta ekimenduetarako ezohiko laguntza-programa, irakasleak prestatzeko programa, tituludunen-tzak berriazko beka-deialdia, lanbide-heziketa sustatzeko kanpainak eta derrigorrezko irakaskuntza amaitzea lortu ez duten pertsonentzako lanbide-hastapenetarako zikloa.

Fundazioak 550.000 € baino gehiago bideratzen ditu Egibide LH zentroko 7.000 ikasleren lanbide-heziketa sustatzeko

Halaber, Vital Fundazioa Arabako **Lanbide Heziketako Partzuergoko** kidea da Eusko Jaurlaritza eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera, eta bere urteko aurrekontuaren defizitaren % 20 ematen dio. Ekarpene hori funtsezkoa da zentroen funtzionamendurako eta zuzenean ikasleentzat da onuragarria, familiek gutxiago ordaindu behar dutelako irakaskuntzaren truke.

Gainera, aurtengo lankidetzak-hitzarmenak berriazko zuzkidura bat barne hartu du Egibide osatzen duten zentro guztietan **wifi konexioa** jartzeko, baita ikasle etorkinei oinarritzako prestakuntza-tresnak ematen dizkien **Harrera Gela** bat abian jartzeko ere.

Egibideren zentroek 450 hezitzaile dituzte, eta 7.000 ikasle baino gehiago hezten dituzte bertako geletan.

Hezkuntza programak

Genero-indarkeria prebenitzeko kanpaina

Vital Fundazioak eta Gurutze Gorriak gazteak bakearen kulturaren eta indarkeriarik ezean hezteko helburutzat duen kanpaina bat garatzen dute. Horrela, gatazkak, bitartekaritzaren bidez, modu baketsuan ebazten erakusten diete. Halaber, genero-identitatearen eta pertsonen arteko erlazioen konfigurazioan eragiten saiatzen da ekimena, gizonen eta emakumeen artean egon diren botere-harremanetarako aukera sortuz eta elkarrizketan eta negoziazioan oinarritutako berdintasuneko harremanak eta harreman demokratikoak sortzeko jarraibideak emanez.

Proiektu hau 2002. urtean abian jarri zenetik 23.807 ikasle parte hartu dute ekimen honetan. 2017ko kanpainan Arabako Bigarren Hezkuntzako 24 zentrotako 12 eta 16 urteko bitarteko **1.807 ikasle** parte hartu zuten.

Vital Fundazioak **44.000 euroko** ekarpena egin zuen 2017. urtean, gazteen artean genero-indarkeria prebenitzeko aldeko apustua bertutezko.

Hiesa eta sexualitatea geletan

Kanpaina honen helburua ikasleen artean jokabide arduratsuek sustatzea da, GIBagatikoko infekzioa prebenitzeko eta sexualitatearen ezagutza zabal eta positiboa izateko, Geletan hiesa prebenitzeko eta sexualitateari buruzko kanpainaren barruan.

Programa Hiesaren kontrako Arabako Herritarren Batzordearen (**SIDALAVA**) laguntzarekin garatzen da, eta asmoa herritar gazteak banako eta gizarteko erantzukizunean prestatzea da, GIBagatikoko infekzioa prebenitzeko eta sexualitatearen inguruko ezagutza zabal eta positiboa emateko, metodo antikonzeptiboak eta jokabide sexual seguruak buruzko informazioaren bidez.

Kanpainak **68.000 euroko** zuzkidura izan zuen, eta 15 eta 19 urte arteko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat izan zen. 2016-2017 ikasturtean zehar 37 ikastetxetako 2.300 nerabek hartu zuten parte programan.

Proiektu hori 2000. urtean abian jarri zenetik 32.300 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute prestakuntza-ekimen horretan.

Gosari osasungarriak

Arabako ikastetxe guztietako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako programa da hau eta Vital Fundazioak eta Lacturalek antolatzen dute. Eguneko gosari egokia egitearen garrantziaz kontzientziatzea du helburu. 2017an gosari osasungarrien hirugarren edizioa burutu da, **Arabako 22 ikastetxetako 2.583 ikaslek** egin dituzten 150 tailerren bitartez. Proiektua dohainik da eta nahi duten ikastetxeek har dezakete parte. Gosari oso eta osasungarri batek zer elikagai izan behar dituen ezagutzeko aukera ematen zaie ikasleei.

Gazteen lonjetan arriskuak prebenitzea

Vital Fundazioak gazteek egiten duten lonjen jolas-erabilerarekin lotutako arriskuak murrizteko proiektu bat bultzatu du **Ai Laket** elkar-tearekin batera. Lonjetara bisitak eginez, drogen kontsumoari eta legezko alderdiei buruzko informazioa eta aholkuak ematen zaizkie Arabako gazteei. Ai Laket elkarteari Drogen Prebentzioaren saria eman dio Europako Batzordeak.

Ekimen honi **'Lonja laket'** programa esaten zaio, eta Vital Fundazioak gure lurraldeko gazteen artean aisialdi arduratsua bultzatzeko apustua da. Proiektuaren helburua arrisku-kontsumoak eta gazteek lonjetan drogak jolas-moduan hartzeak dituen arriskuak murriztea da. Era berean, beraien aisialdian lonjetan egotea erabakitzen duten ez-kontsumitzaileen erabakia indartzea eta eremu horien opakutasunak haien barruan daudenengan nahiz auzokoen-

gan eragin ditzaketen arriskuak txikiagotzea ere da helburua.

2017. urteko martxotik abendura bitartean 10 lonja bisitatu eta prebentziozko 30 esku-hartze egin dira. Sei lonja Vitoria-Gasteizen daude, bat Ondategin, bi Agurainen eta beste bat Dulantzin. Bigarren edizio honetan **180 gaztek** hartu dute parte.

Cosmium

Vital Fundazioak **'Cosmium, izarretako bidaiariak'** proiektu berritzailea jarri du abian, zientzia eta ingurumena bateratzen dituen diziplina anitzeko hezkuntza-ekimena. Astronomia Arabako ikasleei hurbiltzea eta argi-kutsadurarekiko sentsibilizatzea ditu helburu ekimenak.

Hala eskatzen duten Arabako ikastetxeetan doan instalatzen duten **planetario mugikorri** esker (360 gradu, 6 metroko diametro duen oinarria eta 3 metro garai), ikasleek zenbait gaitasun garatzen dituzte, hala nola kultura zientifikoaren eta teknologikoaren gaitasuna, matematika-gaitasuna, gizarterako eta herri-tartasunerako gaitasuna. Ikuspegi ludiko eta esperimental batetik, proiektuaren helburua da biztanlerik gazteenak zero garbiek gizakientzat duten garrantziaz jabetzea eta horrekiko sentikor bihurtzea. Horrela, ondare horrek zientziarako, hezkuntzarako, kulturarako eta, noski, bizi-kalitatearen faktore gisa duen balioa azaltzen zaie.

Edukiak taldekideen adinera egokitzen dira eta **gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez** ematen dituzte begirale adituek. Horrez gain, astronomiarekin zerikusia duten erakunde ofizialen materialetan oinarrituta daude, eta teleskopio handiek (lurtarrek nahiz estralurtarrek) egindako benetako irudiak eta software espezializatuak egindako simulazioak erabiltzen dituzte. Jarduera Susana Malón fisikari eta astronomoak koordinatzen du.

Cosmim programa 36 ikastetxetara eramán duten 2017. urtean eta Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko **6.175 ikaslek** baino gehiagok hartu dute parte.

Bihotzu salbamendu-programa

Gaixotasunen prebentzioa eta ezagutza da 2017. urtean ikasleentzat abian jarritako beste hezkuntza-proiektuetako bat. Ekimena Mugarik gabeko Bihotza Elkarrekin bultzatzen du eta DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzenduta dago, bihotz-biriketako bizkortzeari eta desfibriladoreen erabilerari buruzko oinarriko ezagutzak beregana dituzten. Horrez gain, gaixotasun kardiobaskularren prebentzioari buruzko dibulgazio hizaldiak ere ematen dira.

Urtean zehar Bihotzu salbamendu-programa Arabako 6 ikastetxetan eman da eta **1.575 ikaslek** hartu dute parte.

“Ahots propioz bizitzea” zerbitzua

2016tik Fundazioak laguntza ematen dio gazteen kontzientziazioan lan egiten duen Elkarrekin horri. Kontzientziazio lan hori ahultasun egoeran dauden pertsonen atentzio integrala emateko da. Helburu hori lortzeko prestakuntza zikloak jartzen dituzte abian bigarren hezkuntzan. 2017an, guztira, 52 tailer antolatu ziren, 12 ikastetxetan eta 951 ikaslek hartu zuten parte.

EmpleoAraba

‘EmpleoAraba’ Vital Fundazioak eta **SEA Arabako Enpresariak** 2016ko maiatzean abian jarritako asmo handiko ekimena da. Bere helburua Arabako industria-sektorean dagoen lan-eskaintza eta lan-eskaera bateratzea da, Arabako enpresetan dauden berehalako kontratazio-beharrak asetzeko. Horietako gehienek, % 45ek, industrien ekoizpen, muntaketa eta mantentze sailetan jarduten dute. Haien atzetik, % 20k, ingeniariaritzaren eta kalitate-kontrolko sailetan dauden beharretan.

‘EmpleoAraba’ elkarrekin orientazio, tutorizazio eta laguntza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die hautagai bakoitzari. Horrez gain, berriazko prestakuntza ematen die profesional tituludunen eta lan-eskatzailen **ezagutzak eta gaitasunak** enpresen hautaketa-prozesuetara egokitzeko.

Arabako lurraldeko enpresek behar dituzten profil profesional kualifikatuak identifikatzen dituen datu-base bat sortuta, hautagaiei **laneratzeko** laguntzen zaie (orientazioa eta bitartekotza, zeharkako gaitasunen eskola, tarteko aginte eskola eta abar). Programaren beste helburuetako bat nazioartean esperientzia duten Arabako talentuak berreskuratzea eta itzultzea da.

Ibilbide pertsonalizatu bat ezarri ondoren, pertsonen zenbait **prestakuntza-jardueretan** parte hartzen dute, **beraien gaitasunak hobetzeko**. Besteak beste taldeko ‘Prestakuntza Pildorak’ eta ‘Zeharkako Gaitasunen Eskolak’ hainbat arlotan emango diete prestakuntza, hala nola komunikazio eraginkorra enpresan, talde-lana, produktibitatea handitzea, gaitasun komertziala edo autokritika eta erabakiak hartzea. Bestalde, ‘Tarteko Aginte Eskolak’, profesionalen beraien gaitasun-esparruetan kudeaketa-jarduerarik onenak egin ahal izateko prestakuntza ematea du helburu. Horrela, erabakiak hartzean haien ekimena ere sustatuko da.

3.563 curriculum inguru jaso dira eta 800 bitartekotza proposatu dira enprekin. Era berean, abian jarri zenetik, 713 kontratazio baino gehiago lortu ditu ‘EmpleoAraba’ ekimenak bigarren fasean, 5 coaching ikastaro antolatu ditu enplegua bilatzeko, zeharkako gaitasunei buruzko 2 ikastaro, eta industria-kudeaketako beste bat tarteko agintarientzat. Ikastaro horietako bakoitza 20 bat pertsonaz osatuta dago.

Hazia 23

Vital Fundazioak eta gazteen enpleguaren arloan aritzen diren gainerako tokiko eragileek Hazia 23 programaren bigarren edizioa bultzatu dute **gazteak laneratzen** laguntzeko. Vital Fundazioaren laguntza **40.000 €-koa** izan zen 2017an, eta laneratzera bideratutako hezkuntzako eta berrezkuntzako estrategiak garatzera bideratu zen diru hori. Ekimen horrek, prestakuntzarik eta lan-esperientziarik ez duten, eta prestakuntza- edo enplegu-sistemetan sartuta ez dauden 23 urtetik beherako langabeak lan-merkatura sartzeko neurriak bultzatzea du helburu.

Hazia 23 programan jasotzen diren ekintzek fase guztiak barne hartzen dituzte: programa honetan parte har dezaketen pertsonak identifikatzetik enpresa batek kontratatzeraino. Tartean, beste zenbait etapa daude: ebaluazio indibidualizatua egitea, laneratzeko ibilbide pertsonala diseinatzea, tutoretza lanak, zenbait prestakuntza-modulu egitea eta beka lortzea. Prozesu hori guztia eskola egutegiarekin bat dator eta irailtik ekainera burutzen da. Guztira 24 gaztek jaso zuten diploma egiaztagarria, 2016-2017 lehenengo ikasturtean lortutako prestakuntza berezia zela eta.

Bekak

Unibertsitateko Erasmus beka

Erasmus beka Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoen eta edozein unibertsitatek 2016/2017 ikasturtean zehar Europar Batasuneko Sócrates / Erasmus Programan parte hartzeko ofizialki aukeratzeko duen unibertsitateko edozein ikaslerentzat dira. Beka horietako bat lortu nahi duten unibertsitateko euskal ikasle gehienek EHU-n ikasten dute.

Laguntza ekonomikoak 800 eurokoak dira hautatutako pertsonak ikasturte osoan parte hartuko badu, eta gehienez, 400 eurokoak izango dira lau eta sei hilabete bitartean egoten diren ikasleentzat. Bestalde, hileko 100 euro arteko beka bereziak ere badaude, lau hilabete baino gutxiago egongo diren ikasleentzat.

Deialdi horren barruan, **egoera ekonomiko berezian dauden gazteen** kasua ere kontuan hartzen da. Beka arruntena bikoizten duen laguntza ere jaso daiteke, 1.600 euro artekoa hain zuzen ere.

Vital Fundazioak **118 beka** eman ditu orotara deialdi honetan.

Ingelesa hobetzeko beka

2017an, Vital Fundazioak aurrera egin zuen unibertsitateko eta Goi-mailako Lanbide Heziketako tituludunek haien ingeles-ezagutzak hobetzeko beka-deialdiarekin, maila tekniko eta komertzialean bereziki.

Laguntza-deialdi honetan bi modalitate daude: lehenengoan 11 beka eskaini ziren, **1.600 euro artekoak, Britainia Handian eta Irlandan hiru hilabete egoteko**. Han, ingeles-eskoletara joateko eta lan egiteko edo lan-praktikak egiteko murgiltze-linguistiko esparru batean, hainbat esparrutan, besteak beste, finantzetan, marketingean, logistikan, giza baliabideetan, hezkuntzan, komunikabideetan edo zuzenbidean.

Bigarren modalitatean 9 beka eskaini ziren **100 orduko ikasturte** bat egiteko, **Hizkuntza Institutua Fundazioan** ingeles tekniko eta komertziala hobetzeko. Beka bakoitza 1.000 eurokoa da, eta beka hauek eskuratzeko eskatzen den gutxienezko maila B1 da. Beka hori aprobetxamenduz egiten duten ikasleek lehentasuna izango dute hurrengo deialdian atzerrian egoteko beka eskatzean.

Euskara ikasteko Ardatz Elkartea beka

Vital Fundazioak **10.000 €-ko ekarpena** egiten du ikasturtean zehar euskara ikastera bideratuak, matrikularen ordainketan laguntzeko. 2017an, 31 ikaslek lortu zuten beka. Horietatik 28 ikaslek 3 orduko ikastaroak egin zituzten eta beste 3k, 5 ordukoak. Ikastaroak IKA Euskaltegian ematen dira.

Berrikuntza teknologikoko beka

Vital Fundazioak beste beka-deialdi bat abiarazi zuen irailean, berrikuntza teknologikoko proiektuak garatzeko. Egibideko Lanbide Heziketako ikasle tituludunei zuzenduta, **3.000 euroko 10 beka** ematen dira.

Beka horiek lortu ahal izateko ezinbestekoa da 2015/2016 edo 2016/2017 ikasturteetan Egibideko campusetako batean (Arriaga, Jesus Obrero, Mendizorrotxa, Molinuevo edo Nieves Cano) Goi-mailako Teknikariaren titulazioa aterata izatea.

Hauek izan ziren beketan barne hartu ziren arloak: ekipamendu industrialen mantentzearen kudeaketa, kalitate-prozedurak laborategi kimikoan, kudeaketako eta ingurumen-sentsibilizazioko prozedurak, laborategien arloan proiektu teknologikoen garapenean prestatzea, kudeaketarako aplikazio informatikoak garatzea, sistemen automatizazioa eta integrazioa 4.0 industrian, ostalaritzaren kudeaketa integrala, marketin eta komunikazioa, ekipamendu informatikoa eta administrazioa eta kudeaketa Lanbide Heziketan.

Praktikak egiteko beka Ekonomisten Partzuergoaren bitartez

Vital Fundazioak **14.000 €ko** ekarpena egin dio orotara **Ekonomisten Euskal Elkargoari** lan-praktiken 10 beka finantzatzeko, sei hilabetez, Arabako enpresetan, tituludun lizentziatu berrientzat.

Praktikez gain, bekadunek prestakuntza ikastaro bat jasotzen dute partzuergoaren Arabako egoitzan bertan, 29 urtetik beherako ekonomistei laneratzea errazteko helburuz.

Ikerketarako laguntza

Ikerketa sustatzea eta talentu gazteei laguntza ematea da Vital Fundazioaren lerro eratzailerako beste bat. Horregatik, **21.000 €** bideratu dira ikerketa proiektuetarako, **Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV/EHU)** ezarritako hitzarmenen harira: 'Arabako uren metagenomika', 'Vitoria-Gasteiz eta bere hiru katedralak', 'Pobrezia eta elikagaitarako laguntza baliabideak Vitoria-Gasteiz', 'Ikerketa, transferentzia eta hedapena elikagai katearen eraginkortasuna hobetzeko Vitoria-Gasteiz hirian'. 1.000 ikasle baino gehiagoren parte hartzea izaten duen 'Zientziaren Asteari' ematen zaion laguntza ere multzo honetan sartzen da.

Ariker, Ikerketa Klinikoen Arabako Elkartea ere Vital Fundazioak ikerketari ematen dion laguntza horren onuradunetako bat da, ikerketa medikorako app tresna baten garapenerako.

Ekintzaileraren aldeko ekimenak

Vital Fundazioak lankidetzak-hitzarmen bat du Arabako Merkataritza eta Industria Ganberarekin enpresa-ekimen berriak sustatzeko -Ekinten- edo sortu berri diren enpresei laguntzeko -Finkatzen-. Lankidetzak horren xedea da enpresa-proiektu bat garatzeko erronkari arrakastaz ekiten laguntzea enpresaburuei. 2017. urtean beste 20 ekintzailerari eman zitzaizen diru-laguntza. Duela 19 urte abian jarri zenetik, Ekiten eta

Finkatzen programek 10.000 ekintzaile inguru izan dituzte tutoretzapean, eta horri esker, 2.000 enpresa baino gehiago sortzen lagundu dute. Horietatik, % 77 finkatu egin dira.

Beste alde batetik, Vital Fundazioak eta Arabako Enpresaburu Gazteen Elkarteak (Aje-bask-Araba) partekatzen dituzten helburuen artean gazte enpresaburuei laguntzen dieten eta gure probintzian enplegua sor dezaketen proiektu berriak sortzea ekartzen duten ekintzak bultzatzearena dago. Helburu horri jarraiki, lankidetzahitzarmen bat dute bi erakundeek, ekintzailetzari laguntzeko diren bi ekimen abian jartzeko. Lehenengoa, 'Globalizatu zaitez' delakoa, nazioartekotzearen aldeko apustu irmoa egiten nahi duten eta kanpoko merkatuetan esperientziarik ez duten enpresaburu gazteentzat eta ekintzaileentzat da. Bigarren laguntza, langile autonomo berrientzat eta azken hogeita lau hilabeteetan sortu diren enpresentzat da. 2017an, guztira, Vital Fundazioak 10 proiektutan eman du laguntza, eta 1.250 euroko laguntza-poltsak ematen dizkie.

Halaber, Vital Fundazioak lankidetzahitzarmen bat sinatu du ASLE elkartearekin (EAEko Lan Sozietateen Enpresa Taldea), lan-sozietatearen izaerarekin enpresa-proiektu bat abian jarri edo horrelako proiektu batean parte hartu nahi duten Lurraldeko langabeei eta ekintzaileei laguntzeko. 2017an, Vital Fundazioak 1.250 euroko zuzeneko laguntza-poltsa bat ematen du lau enpresa-proiektu garatzeko, enpresaren lehen bi urteetan finkatzen laguntzeko helburuarekin.

Azkenik, ekintzailetzari laguntzeko sailaren barruan, nabarmendu behar da **'IkasEkiten, ekiten ikasten'** programa abian jarri duela **BIC Araba** zentroarekin batera. Ekimen horri esker, lurralde historikoko 15 ikastetxek, Vitoria-Gasteizko 9k, Amurrioko bik, Langraiz-Okako bik,

Murgiako batek eta Aguraingo beste batek goiz bat Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroan emateko aukera izan dute, ekintzailetza garatzeko beharrezkoak diren gaitasunekin lotuta dauden gaikako tailerrak egiten: ekimena, sormena, berrikuntza, konfiantza, arazoak ebaztea eta abar. Horrez gain, ekimen ekintzaileen sustatzaileak ere ezagutu zituzten, eta esperientziak eta kezkek partekatu zituzten. Ikasturte honetan 619 ikaslek hartu dute parte ekiten ikasteko 25 tailerretan.

Enplegua eta lurralde oreka

Lantegi Eskolak Añanako Kuadrillan

Vital Fundazioak Añanako Kuadrillarekin zuen lankidetzahitzarmena berritu du, **Micaela Portilla Lantegi Eskolari** jarduten jarraitzen laguntzeko. Hauek dira prestakuntza eta enplegu zentro horren helburuak: langabezian dauden gazteak lanbide batean prestatzea, zaharbertzearen arloan, igeltserotza, muntaketa-zureria eta hargintza espezialitateetan zehazki, laneratzen laguntzea eta Fontetxan (Araba) dagoen Orgaz Dorre Jauregia eraberritzea.

Ikasleek lanerako lanbide-prestakuntza jasotzeaz gain, praktika profesionalak ere egiten dituzte (benetako obra batean lan egiten dute), praktika horiek amaitutakoan, ikasitako lanbidean modu egokian aritu daitezzen eta, hartara, laneratzea errazagoa izan dakien.

2017an, Micaela Portilla Lantegi Eskolak **Añanako Gatz Harana** berreskuratzeko programarekin jarraitu du.

Hauek dira Lantegi Eskolan matrikulatzeko baldintzak: 16 eta 24 urte bitartean izatea, langabeziako txartela izatea eta, atzerritarren kasuan, egoitza-baimena izatea. Ez da beharrezkoa Bigarren Hezkuntzako graduatua izatea.

Añanako Kuadrillarekin Lantegi Eskolak garatzeko ezarritako lankidetzak, bat dator Vital Fundazioaren ildo estrategikoarekin. Horren bidez, arabarrei laneratzeko laguntzeko prestakuntza-jarduerak sustatzen eta bultzatzen ditu, eta heziketa arautuaren barruan ez dauden bestelako aukerak eskaintzen ditu.

Vital Fundazioak **120.000 euroko** ekarpena egin du arautuaren barruan ez dagoen bestelako prestakuntza bat eskaintzeko, horren bidez lan-merkatuan sartzen laguntzeko eta eskualdeko ondare aberatsa berreskuratzeko.

Vital Fundazioaren laguntza lurralde orekaren aldeko beste mota batzuetako ekintza aitzindarietara ere zabaltzen da. 2017 honetan, **Añanako Kuadrilla** izango da Sobroneko Uraren Museoa koordinatu eta kudeatzeko arduraduna, Vital Fundazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Lantaroneko Udalarekin sinatu duen hitzarmen bati esker. Vital Fundazioak 8.000 euroko ekarpena egin du proiektu horretarako, hartara, zentroa datozen lau urteetan jardun-gduela bermatu da.

Enplegu-proiektuak beste kuadrilla batzuetan

Vital Fundazioak Arabako beste kuadrilla batzuekin ere sinatu ditu lankidetzak-hitzarmenak urtean zehar, eta **10.000 €** jaso du bakoitzak. Horren adibide bat dugu **Aguraingo kuadrillarekin** lortutako akordioa, gehienez, 12 ikasleri, 'Ehungintza teknikak' izeneko 100 orduko ikastaro bat emateko, sektore horretan lana dagoela egiaztatuta baita. **Kanpezuko kuadrillarekin** sinatutako akordioa ere azpimarratu behar da,

beste 12 gazterentzako egin diren 'Plataforma jasotzaile operadore' ikastaro bi emateko (6 gazte ikastaro bakoitzean), udan inguruetakoa instalazioetan lan egin dezaten.

Enpleguaren aldeko ekimenak egin diren lurraldeko beste eremu batzuetako bat **Aiarako kuadrilla** izan zen. Horrek ere Vital Fundazioaren laguntza izan zuen prestakuntza-ikastaroak abian jartzeko, besteak beste arlo hauetakoak: 'Enpleguaren bilaketa', 'Ostalaritzarako dinamizazio teknikak' eta ETE-etara bideratutako beste batzuk, esaterako, 'Cloud computing comercial', 'Marketing digitala turismoan' eta 'Kudeaketa aurreratua'.

Berariazko taldeei zuzendutako enplegu-ekimenak

SARTU-Araba elkartearen eskutik (Gaitasun pertsonal eta profesionalen garapena sustatzeko gizarte- eta lan-inguruetan nahiz pertsonengan beharrezkoak diren aldaketak sustatzen dituen elkartea da), 'BATEKIN' Borondatezko Gizarte Ekintza Sustatzeko Bulegoa bultzatu du Vital Fundazioak 2016. urtean. Zerbitzu integral eta doakoa da irabazi asmorik gabeko erakundeentzat eta Arabako boluntarioentzat. Euskadiko beste boluntario-tza-agentzia batzuekin lotuta dago (Bolunta Bizkaian, Gizalde Gipuzkoan eta beste federazio batzuk). Lehen urtean Arabako Boluntarioen Mapa konfiguratu zen eta 2017an, 347 ekintza berri egin dira.

SARTU-Arabarekin egindako akordioak Gazteak Bermatzeko Programa Operatiboa ere bultzatu du, ikasten ari ez diren eta boluntarioen esparruan edo Abegi Zerbitzuan lan egin nahi duten gazteak lan-merkatuan txertatzeko, enplegurik ez badute. Helburua da gizarteratze eta laneratzeko prozesuetan eta gizarte arloko bestelako informazio-eskaeretan laguntzea. Guztira 3.229 pertsona baino gehiago artatu ditu.

Vital Fundazioaren laguntzari esker, **Merkataritza eta Zerbitzu Arabako Elkartek** (AEnkomer), merkataritza eta zerbitzuen arloko Arabako 30 elkarte esanguratsuenak biltzen dituenak, prestakuntza tailerra jarri ditu martxan, bai sektore horretan lan egin nahi dutenentzat, bai ekintzaileentzat, bai saltokietako edo zerbitzuetako kudeatzaileentzat, zenbait eginkizunetarako euren prestakuntza hobetzeko helburuz. Vital Fundazioak **9.000 euroko** ekarpena egin dio laneratzea errazteko proiektu horri; izan ere, laguntza hori bat dator fundazioak gizarte ekintzako eta enpleguaren sustapeneko programei ematen dizkien laguntzekin.

Gizarte- eta lan-inguruetan bereziki ahulak direnez, Vital Fundazioak ijitoengan jartzen du arreta, emakume ijitoengan bereziki. Hori dela eta lankidetzat-hitzarmen bat sinatu du **Ijitoen Elkarterekin**, emakume ijitoen gizarteratzea eta laneratzea hobetzeko, aukera-berdintasuna, genero-berdintasuna eta edozein mota-tako bazterkeriaren kontrako borroka sustatuz. Arreta berezia jartzen diote emakume ijitoek jasaten duten diskriminazio anizkoitzari eta genero-indarkeriaren biktimei.

Proposamen honi esker, emakume ijitoaren berariazko arlo bat bete da, muturreko ahultasun-egoeran dauden emakumeena, zerbitzu eta baliabide publikorik ez duten eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden emakumeekin lan egiten duten beste erakunde batzuen ekimen eta programetan parte hartu ezin duten emakumeena.

Eco-Emprende ikastaroak

Garaion taldea irabazi asmorik gabeko erakundea da, 2008an sortua eta Ozaetan kokatua. Naturarekin, euskararekin eta sorkuntzarekin zerikusia duten jarduera ludiko-hezkuntzakoak egiteko etxe bat kudeatzen dute, lanbide tradizionalatik abiatuta, esaterako otzaragintza,

nekazaritza ekologikoa, usadio eta ohitura tradizionalak berreskuratzea eta bio-eraikuntza.

2017an zehar, Vital Fundazioak 10.000 € bideratu ditu hainbat ikastaro finantzatzen laguntzeko, bereziki 'Bio-eraikuntza ekintzailea: isolamendu eta bero sistemak', enpresa-praktikak egiteko dituen zailtasunak direla eta.

+55 prestakuntza programak

Prestakuntzaren arloan **1.885 pertsona** inguruk hartu dute parte Vital Fundazioak 55 urtetik gorako pertsonentzat abian jarri dituen programetan. Ikastaroen eskaintzan hainbat arlo barne hartzen dira, hala nola filosofia eta historia, baina teknologia berriak ere ikasten dituzte, esaterako, informatika edo argazkilaritza digitala.

Vital Fundazioak **Esperientzia geletan** ere lankidetzan jarraitu du EHUrekin, eta 300 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

+55 PRESTAKUNTZA PROGRAMAK	1.885
TELEFONO MUGIKORRA ERABILTZEN IKASTEA	108
ESPERIENTZIA GELAK	312
HARDWARE IKASTAROAK	24
HIZKUNTZA IKASTAROAK	78
INFORMATIKA IKASTAROAK	823
TOPAKETAK LITERATURAREKIN	24
ANTZINAKO HISTORIA	172
FILOSOFIAREN HISTORIA	146
PSIKOLOGIAREN HISTORIA	110
EKONOMIARI BURUZKO TAILERRA	42
ARGAZKILARITZA DIGITALARI BURUZKO TAILERRAK	25
OROIMEN TAILERRA	21

1.4. Ondare eta Ingurumen saila

Laguntza euskarari eta euskal kulturari

Arabako ikastolen eta euskararen aldeko Araba Euskaraz festa 1981. urtetik ospatzen da, dirua biltzeko eta Arabako lurraldean euskararen erabilera sustatzeko helburuz. Vital Fundazioa ia hastapenetatik hasi zen laguntza ematen, urtero lankidetz hitzarmenak sinatuz.

2017. urtean Bastidan izan zen **Araba Euskaraz** festa, ekainaren 18an. Fundazioaren laguntzan (18.800 euro) festa honen aurretik egiten diren jarduerak eta Ikastolen Federazioak prestatutako hezkuntza, kultura eta kirol programa ere barne hartzen dira. Horrez gain, hezitzaileen-tzako jardunaldi pedagogikoak ere barne hartzen ditu hitzarmenak.

Beste alde batetik, Fundazioak lankidetz hitzarmena berritu du **Denon Eskolarekin** (Arabako eskola publikoetako ikasleen guraso elkartearen Federazioa), haren jarduera-programari laguntzeko.

Era berean, lankidetz hitzarmen bat sinatu du Vital Fundazioak **Eusko Ikaskuntzarekin**, Ekinez Planean (2016-2019) barne hartzen diren bost proiektuetako bat abian jartzeko. Zehazki, 'Euskararen etorkizuna. Aukerak' proiektua. Horren helburua da euskararen gizarte-errealitatearen ikuspegi bat ematen duen interpretazio-esparru bat egitea.

Gazteenen artean euskarazko abestiak sustatzeko helburuz, Vital Fundazioak eta GEU Gasteiz Euskaldun Elkartek lankidetz hitzarmen bat sinatu du **Kantari**ren II. edizioa egiteko, Vitoria-Gasteizen egiten den Euskararen Astearen barruan.

Vital Fundazioaren beste helburuetako bat kultura-ondarea bizirik iraunaraztea da. Helburu horrekin lankidetz hitzarmen bat sinatu du Arabako Dantza Federazioarekin, bertako folklorea gordetzeko eta zabaltzeko. Hori lortzeko '**Araba Dantzan**' abian jarri du. Arabako herrietan, ekain, uztail eta irailean, bertako dantza-ikastaroak eskaintzen dituen programa da. Lankidetz honetan, **Dantzari Eguna-**





ren antolaketan laguntzea ere barne hartzen da, izan ere, urtero 400 dantzari inguru biltzen dira.

Bertako folklorea gordetzeko eta zabaltzeko helburu berarekin, Vital Fundazioak eta **Jare Dantza Taldeak** akordio bat sinatu dute urtean zehar hainbat jarduera bultzatzeko, hala nola Umeen Euskal jaia ekainean, eta Euskal folklore topaketa irailean.

Gure kultura-ondarearen osagai gisa, Vital Fundazioak beste lankidetzahitzarmen batzuk sinatu ditu erakundeekin, esaterako Arabako **Euskal Pilota** Elkartearekin, Arabako **Bertsotzale** Elkartearekin eta **Elkarte Gastronomikoen** Federazioarekin (Boilur).

Azokak

Vital Fundazioak Udalekin, Kuadrillekin eta tokiko beste erakunde batzuekin lankidetzahitzarmenak egiten jarraitu du 2017. urtean, azoken antolaketan logistikoan eta lurraldearen sustapenean laguntzeko. Horrela, Araban egindako **160 ekitaldi** inguruetan egiturak utzi ditu (hesiak, puzgarriak, standak, megafonia, aterpeak eta abar). Bertaratutako kopuruari

dagokionez, ziur asko 75.000 bisitari baino gehiago egon dira.

Vital Fundazioak laguntza ematen duen **Arabako lehen mailako sektorearekin** zerikusia duten azoken artean hauek nabarmentzen dira: Arabako Errioxako Mahats Bilketaren Festa, Gaubeako Patataren Azoka, Pobesekeko Babarrunaren Azoka, Kuartangoko Perretxikoaren Azoka, Aguraingo Abere Azoka edo Rivabellosako Nazioarteko Trufa Azoka.

Vitoria-Gasteizko Gabonetako Azokaren 60. edizioa

Joan den abenduaren 22an Vital Fundazioak 2015etik antolatzen duen Gabonetako nekazaritza azoka egin zen berriro. Urtero **10.000 lagun** inguru joaten dira gastronomia eta artisautza azoka honetara, eta Lurraldean egiten direnen artean ospetsuenetako bat da.

2017. urteko azokan 114 merkatari bertaratu ziren eta **140 postu** bete zituzten. Gastronomi eskaintza zabala egin zen, eta oilategiko hegaztien ohiko erakusketa eta salmenta ere egon ziren.

Merkatu horri emandako laguntzarekin Vital Fundazioaren helburua Araban antolatzen diren nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueri laguntza ematen jarraitzea da. Izan ere, **Arabako ekoizleek** lehenetasuna dute postu bat eskuratzeko orduan. Gehienbat Arabatik datoz (56 postu), baina beste leku batzuetako ekoizleak ere bertaratu ziren, hala nola Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Errioxa, Kantabria, Gaztela eta Leon, Aragoi, Katalunia, Asturias, Gaztela-Mantxa eta Frantziakoak.

Artisau-produktuen eskaintzari dagokionez, Lehendakari Agirre kalean kokatu ziren bigarren urtez, eta, besteak beste, zilarrezko bixiak, saskiak, zeramika, lurrezko kazolak, zahagiak, artilezko produktuak edo zurezko elementuak, esaterako, jostailuak eta sukaldean erabiltzeko tresnak egon ziren salgai.

Andre Maria Zuriaren azoka

Ohiko ekitaldi tradizional hau Loma Jenerala-



ren plazan izan zen bigarren aldiz, eta **jatorriz arabarrak diren 17 ekoizle eta artisau** bildu zituen abuztuaren 5, 6, 7 eta 8an. Ekimen hau Vital Fundazioak lurraldeko nekazaritzako eta abeltzaintzako sektoreari eta artisautzari ematen dizkien ohiko laguntzan barne hartzen da.

Bioaraba

Produktu ekologiko, bizitza osasuntsu eta kontsumo arduratsuaren Bioaraba Azokaren IV. edizioa azaroaren 3tik 5era bitartean izan zen, Vitoria-Gasteizko Iradier Arena esparruan. Ekimenak Vital Fundazioaren, Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du.

Hurbileko produktu ekologikoak erosteko eta dastatzeko aukera ematen du Bioarabak handuden gaikako eremuan bidez. Horrez gain, produktu eta zerbitzuei buruzko hitzaldi eta erakustaldietara joateko aukera ere badago. Era berean, sukaldaritza osasungarri, ekonomiko eta arduratsuaren erakustaldiak ere egiten dituzte Vitoria-Gasteizko jatetxeetako sukaldariek. Inguruko produktu ekologikoekin egindako janariak ere prestatzen dituzte.

Ardoaraba

Arabako eta Euskadiko xarma turistikoetako bat bihurtu da. Dagoeneko Vitoria-Gasteizen egiten den hamazortzigarren edizioa da, eta ardoa eta gastronomia gustukoa duten 100.000 pertsona baino gehiago bertaratu ziren. Vitoria-Gasteiz, mahastizaintzako eta ardogintzako lurralde pribilegiatu baten hiriburua da Arabako Errioxari eta Arabako Txakolinari esker. Vital Fundazioak aktiboki lagundu zuen bigarren aldiz azoka honen antolaketan **Txoko Gastronomikoa** bultzatuz. Azaltzen diren dastaketak egiteko, ardoak aurkezteko, pintxoak egiteko edo haurrentzako tailerrak egiteko leku eskusiboa da. Horrez gain, **haurrentzako txoko** bat ere bada, txikienek puzgarriez eta jolasez goza dezaten.



Lurralde sustapena

Ardoaren ibilbidea

Gure lurraldearen eta bertako produktuen (kasu honetan, Arabako Errioxako ardoaren) aldeko apustua egitea Vital Fundazioaren lanaren ardatzetako bat da, lurraldea sustatzeko. Helburu horren barruan, Fundazioak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu du **Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbide Elkartearekin** 2017. urtean zehar prestakuntza jardura programa bat garatzeko. Programa horretako jarduerak foro enogastronomiko baten inguruan ardaztu dira eta sektorearekin zerikusia duten erakunde eta enpresa guztiek eman zuten laguntza eta egin zuten lan.

Santa Katalinako lorategi botanikoa (Iruña Oka)

Vital Fundazioak eta **Santa Katalina Lorategi Botanikoen Lagunen Elkarteak** lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten 2017. urtean zehar zenbait jardura egiteko, beraien baliabide natural, historiko eta kulturalak eta ondarea ezagutzera emateko. Horien artean, Santa

Katalinako Lorategi Botanikoa eta hango Izar Parkea sustatu zituzten, komunikazio-plan baten eta dibulgaziozko ekintzen bidez, lorategi hori probintziako turismo-baliabide gisa ezagutzera emateko eta bere balio handia nabarmentzeko helburuz.

Gatz Haranean eremuak berreskuratzea

Vital Fundazioak eta Añanako Gatz Harana Fundazioak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute Añanako gatzagetan gatzak ekoizteko eremu berriak berreskura daitezen. Zehazki, Vital Fundazioak emandako **40.000 euroko** laguntzaren bidez, proiektu honen asmoa da larriak, putzuak, biltegiak, murrak, trabuketeak eta zurezko bilbadurak berreskuratzea La Cubilla izenaz ezaguna den gunean, Muera eta Vitoria erreken elkargunearen ekialdean. Lankidetzaren bitartez bi helburu bete dira: batetik, Arabako Lurralde Historikoko kultura eta ingurumen **ondarea** berreskuratzea, eta, bestetik, **enplegua** sortzea. Izan ere, hori gauzatzeko Micaela Portilla Prestakuntza eta Enplegurako Zentroko antzinako ikasleak kontratatzen dira, ordaindutako praktiken bidez.

Etxe Berdeak

2015. urtean abian jarritako eta Vital Fundazioak eta Vitoria-Gasteizko Udalak bultzatutako hezkuntza-programa bat da. Beraien erabakiek eta eguneroko ohiturek ingurumenean eta gizartean duten eraginarekin kezkatuta dauden familientzat da.

2017an, **50 familiak** hartu zuten parte programa horren III. edizioan, eta izan dituzten helburuak honako hauek izan dira: % 10 jaistea etxeko hondakinen ekoizpena, uraren kontsumoa % 10ean murriztea, % 10 jaistea energia-kontsumoa, % 5,2 jaistea CO2 isurketak (Kiotoko Protokoloaren helburua), eta hauek bezalako ondorioak: familien ekonomia hobetzea, energia, garraioa eta erosketen erabilera arduratsua eginez, kalitate maila hobetzea energien, ur kontsumoaren eta hondakinen kudeaketa hobea eginez eta tokiko kontsumoa sustatuz.

Guztira 12 prestakuntza-saio egin ziren, familientzako tailer formatuaren bitartez, 12 tailer umeentzat, 18 informazio eta sensibilizazio saio hainbat gairi buruz (Energia Aurrezkia eta Eraginkortasuna, Hondakinak, Birziklatzea eta Garraioa, Kontsumo Ardurtsua) eta 4 bisita leku interesgarrietara, esaterako, araztegiara eta biokonpost plantetara.

Arreta etxabereei

Animalien Babeserako Vitoria-Gasteizko SOS Elkartea (APASOS), 2004an eratu, Vitoria-Gasteizko Animalien Babes Zentroan jasotako animalien biz-baldintzak hobetzea posible zela pentsatzen zuten pertsonek sortu zuten. Fundazioaren laguntza arreta hori hobetzen ardatzen da eta elkarte lanetan, baita animalia horiek adoptatu ahal izateko Azoka baten presaketan ere, izan ere, 618 adopzio lortu ziren.

2. Fundación Estadio

Estadio Fundazioak funtsezko lana egiten du duela ia hirurogei urte kirolaren kultura garatzearen alde eta bere abonatuaren artean nahiz Gasteiztarren eta Arabarren artean jarduera fisikoa sustatzearen alde. Bere jarduera nagusia kirola erregularitasunez egitea bultzatzea da, eta horretarako, kirol-jarduerak, gizarte- eta kultura-jarduerak eta jolas-jarduerak sustatzen ditu. Bestalde, kirola eta bere modalitateen irakaskuntza bultzatzen, irakasten eta zabaltzen du. Azkenik, Vitoria-Gasteizen dituen instalazioak kudeatu eta mantentzen ditu, 'Estadio' izenaz ezagutzen direnak.

Kirol gune honek 40.000 m² inguruko azalera du eta estalitako nahiz estali gabeko zenbait

instalazio zabal ditu. Askotariko kirol jarduera eta zerbitzu eskaintzen ditu, eta profesionalen osatutako talde osoa du, kirola ingurunerik onenean egin dezan jende guztiak, urte osoan eta hiriko leku ezin hobean. 2017. urtea, frontoiko hormak eta putxea hobetzeko urtea izan da, tenis-pisten lurra ere bai eta zabalkuntza eskalatzeko horman eta hamakeroetan.

Instalazio barruan eta kanpoan batik bat, Vital eta Estadio Fundazioak Vitoria-Gasteizen eta Araban dauden kirol ekitaldi aukera zabala- ren eragile bultzatzaile nagusiak bihurtu dira, jardueren edo baliabide gutxiago dituzten erakundeen antolatzaile, laguntzaile edo babesle gisa.



Gaur egun, Estadio Fundazioak **ia hoge mila bazkide** inguru ditu, gogobetetasun, gomen-dagarritasun eta leialtasun maila oso handiarekin, eta antolatzen dituen jardueretan ere partaidetza-maila handia du. **Urtero, milioi bat sarrera inguru** izaten ditu Cervantes ibilbideko instalazioetara.

Estadio Fundazioak denboraldiko nahiz udako jarduera-programa finkatzen jarraitu du 2017. urtean zehar, eta hobetzeaz gain, beste jarduera batzuk gehitu ditu. 2017/2018 denboraldian jarduera berri hauek sartu zituen: barre dantza, outdoor entrenamendu funtzionala, HIIT, patinatzea familiar, SUP pilates, emakumezkoen triatloia, yoga dinamikoa eta badminton, saskibaloia, futbol + balioak haurrentzako eskolak, judoa, karatea eta errugbia eta 2017ko udan (abonatueta zentratuta), gainera, igeriketa ur zabalean, nordic walking, padelsurg, trail running eta hondartzako boleibola.

Guztira 55 aukera baino gehiago daude eskola, ikastaro eta saio solte gisa Estadioan eta haren inguruetan, hau da, 300 saiotik gora astean, Atik Zra aukera ohikoenak barne hartzen dituztenak (igeriketa, patinajea, mantentzeko gimnasia, Pilates, GAP edo spinning, besteak beste) eta Arabako kirol-eskaintzan berriagoak diren beste batzuetaraino (airetiko ariketa, esekita dagoen hamakan), Feldenkrais (gimna-

sia arina, bereziki errehabilitatzeko), mindfulness meditazioa (arreta osoa lantzeko) eta TRX funtzionala (entrenamendu funtzionala esekita). Horietako batzuk, Estadio Fundazioan baino ezin egin daitezke Euskadin.

Bestalde, Fundazioak hamar bat irteera eskaintzen ditu, goizetan egitekoak, hil bakoitzaren hirugarren larunbatetan, mendi-ibilien bidez natura-ingurune hurbilena ezagutzeko, edo eguneko sei ibilaldi, urriko, azaroko, martxoko, maiatzeko eta ekaineko azken igandeetan. Ibilaldi horietan zailtasun desberdineko mendietara igoko da, eta uda gorrian, elur-erraketekin zeharkaldiak egingo dira eta eki nordikoa, elurteak aprobetxatuz.

Era berean, kirol kultura sustatzeko helburuari jarraiki, osasuna, ingurumen edo gizarte arlotako zikloetan antolatutako konferentzia sorta zabala egin ditu Estadio Gelak 2016/17 eta 2017/18 denboraldietan. Jarduera fisiko erregularra, unibertsitate bekak kirolarientzat, teknologia eta jarduera fisikoa, kirol profesionala eta elkartasuna, kirola eta genero berdintasuna, euskal kirolaren historia, kirolaren epaileak, dopina eta kirol amateurra, babesletza kirolean edo ibilbide handiak bizikletaz izan dira hitzorduetako batzuk.

Informazio gehiago www.fundacionestadio.com

3. Hizkuntza Institutua Fundazioa

Hizkuntza Institutua Fundazioa 1967. urtean sortu zen, eta bere jarduera nagusia gazteei ingelesa irakastea da, batik bat 16 urtetik beherakoei.

Hizkuntza Institutua Fundazioaren hezkuntza-eskaintzan ingeles eskolak dituzte, helduentzat eta zazpi urtetik aurrerako ikasleentzat, maila guztietan ematen dira eta zentroaren jarduera-ardatz nagusia dira; aleman eskolak, hamabi urtetik gorakoentzat; edo frantses eskolen kasuan, ikasleek gutxienez DBHko lehen mailan egon behar dute, txinera edo arabiera hastapen ikastaroetan bezalaxe.

Era berean, Vital Fundazioarekin lankidetzan, ingelesezko, frantsesezko, euskarazko eta alemanezko hastapen-ikastaroak ematen dira 55 urtetik gorakoentzat.

Halaber, lankidetzan horri esker, beka-deialdia ere egiten da Hizkuntza Institutua Fundazioaren egoitzan 100 orduko ikasturte bat emateko, ingeles tekniko eta komertziala hobetzeko helburuz. Beka bakoitza 550 eurokoa da, eta beka horiek lortzeko eskatzen den gutxieneko maila B1 da (egiaztatu behar da). Gaur egun, 21 ikasle daude.

2017-2018 ikasturtean 1.108 matrikula egin dira, eta gelako batez besteko ikasle kopurua 13,67 da. Guztira 81 talde dira.

17-18 ikasturteko matrikulak

Adina	Matrikula kop.	%
14 urtetik beherakoak	619	55,86%
14 eta 16 urte bitartekoak	210	18,97%
16 eta 18 urte bitartekoak	106	9,57%
18 urtetik gorakoak	173	15,60%
GUZTIRA	1.108	100,00%



Hizkuntza Institutuak gelak, multimedia gela, hizkuntzen laborategi digitala, liburutegia (liburuak mailegatzeko zerbitzua) eta ikasketagela ditu. Eskola gehienak 18:00etatik 21:00etara ematen dira, astelehenetik ostiralera, eta 17:30etik 20:30era da laborategiaren ordutegia.

Guztira 229 eskola-ordu ematen dira astero, asteko 2 orduko taldeetan (ikasle gazteenak), edo 3 ordukoetan gainerakoen kasuan. Asteko

bi orduko ikastaroek 67 eskola-ordu dituzte, eta ez dago mugarik hizkuntza laborategira joateko. Asteko hiru orduko ikastaroek 100 eskola-ordu dituzte, eta ez dago mugarik hizkuntza laborategira joateko.

Horrez gain, bere ikastaroei, azterketei, atzerriko egonaldiei, trukeei eta lanei buruz aholkatzen ditu Hizkuntza Institutuak bere ikasleak.

Informazio gehiago www.institutoidiomas.com

4. Sancho el Sabio Fundazioa

Euskal kultura biltzen, zaintzen eta zabaltzen

50 urte baino gehiagoko etengabeko jarduerari esker erreferentziako zentro bat sortzea lortu dute euskal kultura inprimatu historikoan eta gaur egun hura digitalki zabaltzean interesa duten ikertzaileentzat. Sancho el Sabio Fundazioaren helburuen artean euskal kultura aztertzea, biltzea, gordetzea eta zabaltzea daude. Hasiera batean, Sancho el Sabio Erakunde gisa hasi zen jardunean, 1955. urtean. Harrezkero,

zenbait egoitza izan ditu eta 2009tik Betoñuko Atean dago.

Sancho el Sabio Fundazioaren dokumentu-bilduma osatzen duten funtsen artean hauek daude: inprimakiak, eskuizkribuak, material grafikoa, mapak, argazkiak eta abar, eta dokumentuak euskarri informatiko eta digitaletan, informazioaren teknologiaren bilakaerari esker egindakoak. Laburbilduz, deskribapen eta katalogazio lan teknikoak dira, hiru esparrutakoak: liburutegia, artxiboa eta fototeka, funts bakoitzean adituak diren langileekin.



Bilduma urtez urte handitzen da euskal argitalpenen edo euskal gaien ekoizpenarekin. Horri esker, euskal kulturaren bilakaeraren interesa duten ikertzaileek edo erabiltzaileek funts paregabea duten eskura. 2017. urtean beste 3.145 lan eskuratu dira bibliografian, aldizkako argitalpenen funtsa mantendu eta eguneratu egin da, funts digitalean 462.0877 orri gehiago sartu dira. Gainera, datu-base bibliografikoak 323.813 erreseina eskaintzen ditu eta datu-base digitala 12.151.354 erreferentziatara iritsi da, on-line kontsulta daitezkeenak.

Sancho el Sabio Fundazioaren web-orria, ikertzaileek, kuriosoek, bisitariak edo euskal kulturaren edozein arlotan interesa dutenek duela bost hamarkada baino gehiagotik gordetzen dituen funtsak ikusteko aukera ematen duen tresna da. Jatorri, tipologia eta tratamendu desberdineko funtsak bilaketa konbinatu bakar batean lotzea lortzen du. Bestalde, software berri bati esker, bilaketa hori, sarbide askeko artxibo dokumental digitalizatuak dituzten beste erakunde batzuen euskal kultura funtsekin lot daiteke.

Sancho el Sabio zifratzen

TITULU BERRIEN SARRERAK	3.145
MONOGRAFIAK EDO LIBURUAK	2.784
ARGITALPEN SERIATUAK	361
DATU BASE BIBLIOGRAFIKOA 12/31N	323.813
LIBURUAK	97.627
ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK	190.038
LIBURUETAKO ARTIKULUAK	16.994
MAPAK	1.858
MATERIAL GRAFIKOA	3.931
ALDIZKARIAK	13.365
DATU BASE DIGITALA 12/31N	12.151.354
BIBLIOGRAFIA ONDAREA	1.595.908
FAMILIA ARTXIBOAK	672.542
ALDIZKARIEN AURKIBIDEAK	110.167
EGUNKARIAK	8.516.809

EUSKO LEGEBILTZARRA	300.000
SNV	236.854
EUSKAL ALDIZKARIAK	693.153
FOTOTEKA	25.918
INFORMATIKOKI KATALOGATUTAKO MATERIALAK	6.045
RREFERENTZIAK	6.045
ARTXIBOAK - ERREFERENTZIAK GUZTIRA 12/31N	48.184
AZAOLA	3.990
MONDRAGONES	60
LARGACHA	105
ST. DE TEJADA	7.497
OTAZU	5.844
LARREA	363
BARRUTIA	218
MARQUES DE LA ALAMEDA	7.433
FOTOTEKA VITAL KUTXA	3.320
AZTEGIETA	637
URABA	71
J.A.BETOÑO	170
YRIZAR	8.648
AMPUERO	3.539
LEKEITIO	4.289
DIGITALIZAZIOA - URTEKO IGOERA	462.087
a) KOMUNIKABIDEAK	343.736
b) ALDIZKARIEN AURKIBIDEAK	0
c) ALDIZKARIETAKO ARTIKULUAK	663
d) EUSKAL ALDIZKARIAK	32.510
e) FAMILIA ARTXIBOAK	83.978
f) FOTOTEKA	0
g) ONDARE BIBLIOGRAFIKOA	1.200
WEB ESTATISTIKAK	964.557
SANCHO EL SABIO WEB KATALOGOA	313.246
ARTXIBOEN KATALOGOA	195.501
POSTA, TELEFONOA ETA FAXA	16.430
WEB-ORRIA	47.505
EMD	391.517
INTRANET	358
LANGILEAK	9
PRAKTIKETAKO IKASLEAK	2
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	1
CARLOS III UNIBERTSITATEA	1

Probintziari irekita dagoen zentroa

Duela zenbait urtetatik, Sancho el Sabio Fundazioak bere funtsak **ate irekien egunen** bidez erakusteko ahalegina egin du beti, Liburutegiaren Egunean edo Liburuaren Egunean batik bat. Horrez gain, asteartero, **'Gogoratzeko tailerra'** antolatzen du, Fundazioan dauden funts bibliografikoak zabaltzeko sortu duen ekimena.

Azpimarratu beharreko beste jarduera batzuk **Betoñuko egoitzan egin diren erakusketak** dira. 2017ko otsailaren amaieran, Ángel Martínez Salazar idazle, kazetari eta editorearen aldeko erakusketa omenaldi bat antolatu zen. Urrian 'Hiri baten autopsia. Sacamantecasen Gasteiz' erakusketa inauguratu zen, Sacamantecasen kasu famatua birpasatzeko, 1970eko hamarkadan hirian gertatutako hainbat delituen erantzule atxilotu zutenetik aurrera.

Beste batzuetan, Sancho el Sabio Fundazioaren fondoak **Vital Fundazioaren beste gune batzuetan** erakusten dira. Vital Fundazioaren Araba aretoa eta Sancho el Sabio Fundazioaren egoitza izan ziren 'Irudipenak. Mis-

tika eta politika Euskadin' erakusketaren agertokia, Gipuzkoako Ezkioga herrian gertatutako Ama Birjinaren balizko agerraldiei buruzkoa. 'Jai zurrumurrak. Araba, lau urtaroak' erakusketa ere Araba aretoan izan zen ikusgai eta bertaratu zirenek hurbiletik ezagutu ahal izan zituzten Arabako ohiturak, jaiak eta tradizioak.

Vital Fundazioaren Luis de Ajuria aretoan 'Creadores de sombras' lanaren aurkezpena egin zen. Liburu horretan, Santiago de Pablo EHUko Historia Garaikideko katedratikoak, zinema, euskal nazionalismoa eta ETaren bortizkeriaren arteko harremana aztertzen du, historian zehar.

Sancho el Sabio Fundazioak urtero abian jartzen dituen ekimenen arteko beste bat **Ikerketako Unibertsitate Lehiaketa** da, euskal unibertsitateetako ikasleen ikasturteko lanak saritzeko sortua. 2016. urtean Alejandro Pulido Azpiroz izan da saritua, I Mundu Gerrak Nafarroan izan zuen eraginari eta prentsan izan zuen islari buruzko bere lanarengatik.

Informazio gehiago www.sanchoelsabio.eus



FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

**Kordoi Etxea. Aiztogile 24
01001 Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 776 858

Orduetgia: Al.-Ol., 8:30 - 14:00 eta 16:30 - 19:00

(ostiral arratsaldetan itxita)

e-mail: info@fundacionvital.eus

www.fundacionvital.eus
